



HIZNET 2018-2019

Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Euskararekiko motibazioak

Ikaslea: Urtzi Arrieta

Tutorea: Nekane Larrañaga

*Euskara ikasten ari diren ikasle eta irakasle guztiei,
eskerrik asko.*

Lanaren laburpena

Euskaltegian izena emateak erakusten du hizkuntza ikasteko motibazioa egon badagoela. Motibazioa, baina, era askotarikoa izan liteke; kasu honetan bi mota bereizi ditugu: motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea.

Metodologian azaldu den bezala, Gipuzkoako euskaltegietan dabiltzan hainbat ikasleri eta irakasleri egindako galdetegiaren bidez erabilera, gaitasuna, harreman-sarea, eta, batez ere, motibazioaren gaineko iritziak jaso dira. Hartara, datu errealak lortu eta euskararen egoera aztertu ahal izan dugu.

Ezin dugu ahaztu urte gutxiren buruan aldaketa handiak eman direla esparru askotan eta, jakina, euskara-mundua ez da salbuespen. Iraganean ainguratuta geratzeak dakarren arriskuaz arduratuta, eta duela hogeita hamar urteko ikerlanak gure iparrorratz izan ez daitezen, nahitaezkoa da lanak eguneratzea eta berritzea. Horixe da, beraz, lan honen xedea; informazio fidagarria jasotzea datozen urteotako norabide eta hizkuntza-estrategia eraginkorra zehazteko.

Hitz-gakoak:

Euskara, erabilera, motibazio integratzailea, motibazio instrumentala.

Lanaren aurkibidea

Esker ona eta laburpena

Hitzaurrea.....	1
Sarrera.....	3
Lanaren abiapuntua.....	3
Lanaren helburua.....	3
Euskararen errealitate soziolinguistikoa.....	4
Gaitasuna.....	4
Erabilera.....	8
Euskaldun tipologia.....	11
Euskaldun berrien erabilera.....	15
Euskararekiko jarrerak.....	20
Zenbait ondorio euskararen egoeraz.....	21
Hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko motibazioak.....	22
Metodologia.....	27
Euskara ikasleen euskararekiko jarrerak eta motibazioak.....	35
Ikasleen euskararekiko motibazioak.....	35
Motibazioa	
Erabilera	
Gaitasuna	
Harreman-sarea	
Motibazioa eta erabileraren arteko lotura	
Irakasleen euskararekiko motibazioak.....	48
Motibazioa	
Bilakaera	
Harreman-sarea	
Gaitasuna	
Erabilera	
Euskararen erabilerari buruzko adierazpenak	
Ondorioak.....	62
- Aurrera begirakoak	
Euskararen osasun egoerari buruzko hausnarketa.....	64
Erreferentziak.....	70
Eranskinak.....	75

Grafikoen aurkibidea

1. [Grafikoa: Elebidunen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2016](#)
2. [Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 1991-2016 \(%\)](#)
3. [Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 1991-2016 \(%\)](#)
4. [Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adina eta eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 \(%\)](#)
5. [Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adina eta eremuaren arabera. Iparraldea, 1996-2016 \(%\)](#)
6. [Grafikoa: Euskararen erabilera. Euskal Herria, 2016 \(%\)](#)
7. [Grafikoa: Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2016 \(%\)](#)
8. [Grafikoa: Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria. 1991-2016 \(%\)](#)
9. [Grafikoa: Hizkuntza-erabilera hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera](#)
10. [Grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera \(BILA indizea\). Euskal Herria, 1991-2016 \(%\)](#)
11. [Grafikoa: Euskaldunak lehen hizkuntzaren \(BILA indizea\) eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2016 \(%\)](#)
12. [Grafikoa: Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2016 \(%\)](#)
13. [Grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera \(BILA indizea\). Euskal Herria, 1991-2016 \(%\)](#)
14. [Grafikoa: Zergatik ari dira ikasleak euskara ikasten](#)
15. [Grafikoa: Zergatik ari dira ikasleak euskara ikasten. Gutxien erantzun dutena](#)
16. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen motibazioa](#)
17. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen etxeko erabilera](#)
18. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen lagunarteko erabilera](#)
19. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen lantokiko erabilera](#)
20. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera herriko dendetan](#)
21. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera administrazioan](#)
22. [Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera osasun-zentroan](#)
23. [Grafikoa: Zer moduz egiten duzu euskaraz galderari erantzuna](#)
24. [Grafikoa: Zer moduz egiten duzu euskaraz zure ama-hizkuntzarekin alderatuta](#)
25. [Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera etxean](#)
26. [Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera lagunartean](#)
27. [Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera lantokian](#)
28. [Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera herrian](#)
29. [Grafikoa: Motibazio instrumentala eta integratzailea dutenen erabileraren arteko konparaketa](#)
30. [Grafikoa: Ikasleen motibazioa irakasleen arabera](#)
31. [Grafikoa: Ikasleen motibazioan garrantzia gutxien duen aldagaia irakasleen arabera](#)
32. [Grafikoa: Euskara ikasleen motibazio mota irakasleen arabera](#)
33. [Grafikoa: Ikasleen motibazioa ikasle eta irakasleen arabera](#)
34. [Grafikoa: Irakasleak ikasleen aldetik eskolak ematen hasi zirenetik antzeman dituzten helburu aldaketarik](#)
35. [Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleak euskaltegiara joatean zuten helburua, lehen](#)
36. [Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleak euskaltegiara joatean duten helburua, orain](#)
37. [Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleen harreman-sarea](#)
38. [Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleen euskara-maila](#)
39. [Grafikoa: Ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza irakasleen arabera](#)
40. [Grafikoa: Irakasleen arabera harreman-sare eta hizkuntza-maila nahikoa dutenen hizkuntzarik erabiliena](#)

Taulen aurkibidea

1. [Taula: Euskaldun berrien erabilera: etxea](#)
2. [Taula: Euskaldun berrien erabilera: bikotekidearekin](#)
3. [Taula: Euskaldun berrien erabilera: Seme-alabekin](#)
4. [Taula: Euskaldun berrien erabilera: Lagunekin](#)
5. [Taula: Euskaldun berrien erabilera: Administrazioarekin](#)
6. [Taula: Euskaldun berrien hizkuntza. Etxean. Adin-tarteka](#)
7. [Taula: Euskaldun berrien hizkuntza. Lankideekin. Adin-tarteka](#)
8. [Taula: Jarreraren arabeko tipologia](#)
9. [Taula: Parte hartu duten euskaltegiak eta zentro bakoitzean jasotako lagin kopurua](#)
10. [Taula: Europako markoa erreferentzia maila bateratuak](#)

Hitzaurrea:

Arantzazuko habian errutako txoritxoak hegoak astindu eta lehen hegaldiak egin zituela mende erdi iragan da. Askoz ere zaharragoa da gure hizkuntza, hain zaharra non, oraindik ere, ez dakigun noiz, non eta nola sortua den.

Eredu estandarra proposatu zen garaian euskara etxeko hizkuntza zen, batez ere. Debekuak eta jazarpenak pairatutako hizkuntza izanik, ez zegoen aukerarik euskara modu publikoan erabiltzeko eta familia-transmisioak ahalbidetu zuen euskararen iraupena. Euskaldun kopurua ez zen handia, hala ere, esan liteke, kopurua baino, euskarak zuen arazorik handiena prestigio eza zela. Euskaldunek haien kultura, balore eta hizkuntzari eutsi nahi bazioten ere, kanpotik egindako kanpaiak fruitu eman zuen eta euskara artaburu, babalore (ez da kasualitatea irainok nekazal inguruarekin lotuak egotea) eta maila baxuko herritarren hizkuntza zela sinetsi eta sinestarazi zuten askok. Hain zuzen ere, nekazal gune eta landa eremuetan ikasketarik gabekoek zerabiltena. Atzera begira, bistakoa da orain, kinka larrian izan dela euskara, galtzeko bidean zegoen hizkuntza zahar eta txikia. Egun, nahiz eta paradisuatik urruti egon, badirudi, hein batean, iraulia dela egoera eta indarge edo hiltzorian egondako haur umezurtza hazi eta indartu dela, nabarmen.

Sendotze horretan oso garrantzitsuak izan dira arestian aipatutako euskararen estandarizazioa eta euskararen erabilera hezkuntza sisteman arautzea. Hala, “D” ereduaren eraketak milaka haur eta gazteri euskaraz ikasteko aukera eskaini die. Halaber, helduen alfabetatzeak eta euskalduntzeak ere lagundu du herrian euskara hedatzen. Erabaki edo ekintza horiei esker, euskaldun kopuruak izugarri egin du gora eta euskarak prestigioa berreskuratu du, batik bat, inguru formalean.

Euskara, behar zuen bultzada eta sustapenari esker, hizkuntza osasuntsu eta prestigiodun bihurtuko zela zirudien, Euskal herrian, ordea, ez da beti festa eta egindako ahaleginak eginagatik ere, egoera idilikoa izatetik aparte darrai euskarak. Izan ere, euskaldun kopuruak gora egin arren, erabilera ez da maila berean hazi eta etxeko transmisioan atzera pauso handiak jazo dira.

Euskararen osasun egoera larria da aditu batzuen ustez, beste batzuek, aldiz, osasuntsu dakusate gure hizkuntza txikia. Batzuek zein besteek hainbat datu darabilte euren teoriak babesteko. Dena dela, baikortasunak edo ezkortasunak ahaztuta eta subjektibotasunetik harago, azken inkesta soziolinguistikoak erakusten du euskararen erabileran joera aldaketa egon dela, eta, orain arte, goraka zihoan erabilerak geldialdia izan duela azken bost urteotan VI. Inkesta soziolinguistikoaren arabera. Beraz, ausartegi jokatu gabe ere, esan dezakegu euskaldunok dugun erronka nagusia euskararen erabilera areagotzea dela. Ez da lan samurra; aitzitik, baliabide ugari eskatuko dituen

erronka nekeza izango da, gogorra, luzea eta ziurgabetasunez josia. Baina, ba al da geurea dena defendatzea baino borroka ederragorik?

Lan xume honek euskararen erabileraren hazkundeak izan duen motelaldiaren zioak bilatuko ditu. Alegia, iritzi edo sinesmen ñimiño batetik abiatutako hipotesiari jarraiki egindako bidezidorra baino ez da.

Hamar urte dira euskaltegi batean irakasle hasi nintzela. Asko edo gutxi den nik neuk ere ez dakit. Kontua da hamarkada batean egoera batzuk izugarri alda litezkeela, beste hainbat egoeretan, oster, lehengo lepotik burua.

Galdetuko balidate, euskaltegietan, lanean dihardudan urteotan, zer aldaketa edo bilakaera jazo den argi neukake. Irakasleok ez dugu apenas aldatu geure lan egiteko modua, genituen baliabideek zertxobait egingo zuten hobera, akaso. Aldaketa nabarmena, baina, ikasleen aldetik etorri da. Egun, gurera datorren ikasle gehienen xedea euskara-agiria egiaztatzea da, argi eta garbi. Ez dut esango hasi nintzenean euskara agiriekin garrantzirik ez zutenik, orduan ere ikasleak erakartzeko tresna baliotsua ziren. Lehentasuna, baina, euskara ikastea zen eta, bide batez, bakoitzari zegokion agiria jasoko zuen ikasleak maila egiaztatuz gero. Hau da, agiria euskara ikastearen ondorio zela esan daiteke. Orain, berriz, lehentasuna da agiria eta bigarren mailakoa euskara ikastea. Horrek euskaltegien lan egiteko moduan ere eragin du, jakina. Pentsa, ni lanean hasi nintzenean taldeen izenak; goizeko Alfa, iluntzeko mintza edota Mirenen gelakoak ziren. Azkenaldian, aldiz, goizeko B1 edo arratsaldeko C2 izenez deritzegu, eta hasiera maila zirenak A1 edo A2 bihurtu zaizkigu noraezean. Tituluak zer diren eta nola egiaztatu daitezken lehen egunetik azaldu behar izaten dugu, ikasleek galdetuta.

Aldaketa horrek gozotik zein mingotsetik du. Alde batetik, ez dago ukatzerik agiriak lortzeko nahi edo beharrak milaka ikasle bultzatu duela euskara ikastera eta, ondorioz, euskaltegiak lepo ditugu. Beste alde batetik, zalantza dut agiri bila hurbildu diren ikasle horiek, helburua lortutakoan, zer ekarpen egiten dioten euskarari. Hots, euskaltegitik harago jardungo al dute euskaraz? Elikatuko al dute geure hizkuntza gosetua?

Bada, denetarik egongo da, noski. Orokortu beharko banu, oster, tamalez, nik ezezkoa erantzungo nuke. Iruditzen zait, hortaz, agiria helburu bakar duten horien euskalduntzea ez dela behar bezala gauzatzen. Hots, gutxieneko euskara maila izan dezaten erraztasunak ematen zaizkie eta ezagutza lor dezaten bermatzen dugu baina erabileran eragin dezaten ez da aski egungo sistema.

Sarrera:

Lanaren abiapuntua:

Euskarari prestigioa emateko asmoz, saiakera handia egin da hizkuntzari balio instrumentala eransteko. Hau da, egiaztatze sistemaren bidez, lana lortzeko edota lanean aukera gehiago izateko ezinbesteko bihurtu da euskara agiria. Egilearen iritziz, motibazio instrumental horrek ez du laguntzen euskararen erabilera areagotzen. Hots, pertsona ez euskaldunak euskara mundura hurbiltzen ditu baina ez ditu benetako hiztun bilakatzen.

Euskararen erabileraren motelaldiak sortutako kezka izan da lan hau egiteko grina piztu duen sua. Azken inkesta soziolinguistikoak arduratzeko datuak ekarri dizkigu, batez ere, erabilerari dagokionez; azken datuen arabera, Euskal Herriko hamar biztanletik batek baino ez du egiten beti euskaraz. Gainera, gazteen arteko elkarriketak euskaraz izatea gero eta ezohikoagoa da. Halaber, lan honen egilea euskaltegietan ibili da irakasle azken urteotan eta bizitako bilakaera guztiz bat dator VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuek erakusten duten errealitatearekin. Horrenbestez, argi dago, euskararen geroa arduratzeko moduko gaia dela. Ardura horretatik abiatuta, lan honen bidez, motelaldiaren zioak bilatu dira eta, zalantzarik gabe, euskarak gaur-gaurkoz duen gabezi handienetakoa euskaldun berrien erabilera dela aintzat harturik, errealitate jakin hori aztertzea erabaki da. Horretarako, Gipuzkoako hainbat euskaltegietara jo da ikasle eta irakasleen iritzia bildu, aztertu eta bertatik ondorioak ateratzeko. Era berean, jasotako datuok orain arte egindako lanekin bat datozen aztertu da eta egoerak hobera egin dezan zenbait proposamen plazaratu da.

Goian aipatutako hipotesia frogatzeko asmoz, euskaltegian ikasten ari diren maila altuko ikasleei galdeketa bat pasatu zaie. Galdeketa horretan, besteak beste, motibazioari eta erabilerari buruzko hainbat galdera egin zaizkie. Emaitzak batutakoan, aztertu da euskararen erabilera altuagoa ote den motibazio integratzailea dutenen artean, edo alderantziz, motibazio instrumentala dutenen artean. Era berean, euskaltegietan irakasle dabiltzanei ere iritzia eskatu zaie galdetegi baten bidez. Horrela adituen usteak ere jaso dira lan honen bitartez.

Lanaren helburua:

Lan honen lehen helburua Gipuzkoako euskaltegietako ikasle euskaldun berrien motibazioa eta erabilerari buruzko informazioa jaso, aztertu, deskribatu eta interpretatzea da. Goian aipatutako

hori, baina, orokor samarra da. Horregatik, zertxobait zehazteko asmoz, xede nagusiaren barruan dauden bigarren mailako helburu batzuk finkatu dira. Hona hemen:

- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasle helduen motibazioak erabileran duen eragina ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasle helduek azken urteotan izan duten helburu aldaketa aztertzea.
- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasle helduen harreman-sarea ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasle helduen hizkuntza gaitasuna ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasle helduen euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Gipuzkoako euskaltegietan ikasle dabilzan euskara ikasleen motibazio, erabilera, harreman-sare eta helburu aldaketaren gaineko irakasleen iritziak ezagutzea eta ezagutaraztea.
- Egungo egiaztatze-sistemak euskararen erabileran duen eragina aztertzea eta zalantzan jartzea, hausnarketa abiaraziz.
- Euskararen erabilera areagotzeko proposamenak egin.

Euskararen errealitate soziolinguistikoa:


Euskararen berreskurapenaren afera ez da atzo goizekoa (Sanchez Carrion 1991). Luze eta zabal idatz daiteke euskararen egoeraz. Hori dela eta, gehiegi luzatu gabe, egilearen ustez, egungo egoeran erabakigarriak diren alor batzuk azpimarratzen dira lan honetan.

Gaitasuna:

Sarreran eta laburpenean behin baino gehiago esan da hizkuntza-gaitasunak gora egin duela. Kasu honetan, gora egin duela esaten denean hiztun kopuruaren hazkundeaz ari gara. Hau da, orain lehen baino euskaldun gehiago dago. Azken datuen arabera (VI. Ikesta soziolinguistikoa, 2016), 16 urtetik aurrerako biztanleriaren % 28.4 da euskalduna. Aintzat hartu behar da, gainera, 16 urtetik beherakoen artean, ia denak direla euskaldunak, hori dela eta, goranzko joera honek datozen

urteotan ere jarraipena izango duela esan liteke. Jarraian agertzen den grafikoan elebidunen bilakaera aztertuko da.

1. Grafikoa: Elebidunen bilakaera. Euskal Herrian, 1991-2016




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Argi eta garbi ikus daiteke elebidun kopuruak gora egin duela azken 25 urteotan, hortaz, esan dezakegu gaitasun mailari dagokionez euskara bide onetik doala. Hots, ezagutzak goranzko joerarekin jarraitzen du eta ez dirudi motelaldirik egongo denik datozen urteotan. Edonola ere, ezin dugu ahaztu, egun, euskal herritarren heren bat baino ez dela euskalduna. Euskaraz ez dakitenak, berriz, erdiak baino gehiago dira.

Jakina, euskal herria osatzen duten hiru lurraldeetan egoera ez da bera. Hala, EAE-ko datuak lasaigarri izan litezke eta Nafarroa zein Iparraldeko datuak arduragarri.

2. Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Goiko grafikoan ikus daiteke, oraindik ere, euskaraz ez dakitenak euskara dakitenak baino gehiago direla. Batez ere, Nafarroan eta Iparraldean.


Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzen badugu, ikus daiteke "D" ereduaren ezarpenak emaitza ezin hobeak ekarri dituela euskal autonomia erkidegoan. Hala, hogeita bost urte eskasetan euskaraz egiteko gai direnen kopurua bikoiztu eta ia hirukoiztu da gazteen artean. Nafarroan eta Iparraldean ere, goranzkoa da joera. Hala eta guztiz ere, goranzko joera hori erkidegokoa baino askoz mantsoagoa da. Batik bat, hezkuntza sistemaren ondorioz.

3. Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 1991-2016 (%)

1991




2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Oso argi ikusten denez, EAE-ko 1991ko datuetan ez zegoen adin-talde arteko alde handirik. Izan ere, esan daiteke grafikoa oso lineala zela eta “U” leun formako marrazkia erakusten zigula. Antzematen zen gazteen arteko nolabaiteko susperraldia baina berreskuratze hori oso leuna zen. Hogeita bost urte geroagoko grafikoaren forma oso bestelakoa da. Argi eta garbi goranzko joera du, hau da, adin-taldea zenbat eta gazteagoa orduan eta altuagoa da hizkuntza-gaitasuna. Talderik gazteenari erreparatuta, gainera, harrigarria da %25etik %71,4ra igaro izana.

4. Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adina eta eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Nafarroan emandako bilakaera EAE jazotakoaren antzekoa da grafikoaren itxurari dagokionez. Izan ere, datu zaharrak oso linealak ziren eta azken inkesta soziolinguistikoa jasotakoek goranzko joera nabarmena adierazten dute. Joera positibizat hartuagatik ere, Nafarroako datuak erkidegoan lortutako datuetatik oso urruti daude.

5. Grafikoa: Hizkuntza-gaitasuna adina eta eremuaren arabera. Iparralde, 1996-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Iparraldeko Euskal Herriko kasua bitxia da oso. Izan ere, ikus liteke nola euskara galtzen ari den heldu eta zaharren artean. Haur eta gazteen artean, aldiz, egoera iraultzea lortu da eta poliki-poliki bada ere, gero eta euskaldun gehiago dago.

Beraz, egin behar dugun lehenengo irakurketa guztiz baikorra da. Kopuruei dagokionez, ezagutzak gora egin du Euskal Herrian, batez ere, euskal autonomia erkidegoan. Halaber, igoerarik handiena gazteen artean eman da eta horrek itxaropentsu gauzka.

Jarraian, erabileraz jardungo dugu. Ikusiko dugunez, erabileraren datuak ez dira ezagutza edo gaitasun-mailarenak bezain itxaropentsuak, ezta gutxiago ere.

Erabilera:

Hizkuntza bizien funtsezko gakoa erabilera da. Hori dela eta, esan liteke erabilerak duela pisu gehien euskararen biziraupenean. Horrenbestez, euskara erabiltzea errazten edo laguntzen duten elementuak ere aztertu beharko lirateke.

Euskararen eremu osoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 25,7k euskara erabiltzen du euskara. Beraz, gainerako % 74.2k erdara darabil. Euskaraz mintzo direnen artean, denek ez dute neurri berean erabiltzen. Izan ere, biztanleriaren % 16.5ek baino ez du trinkotasunez euskaraz egiten eta %9.2k erdara baino gutxiago erabiltzen du.


6. Grafikoa: Euskararen erabilera. Euskal Herria, 2016(%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremuka bananduta, euskaraz baizik bizi ez diren horien kopuruak oso eskasak direla ikus dezakegu. Erkidegoko kopuruak kezkarriak dira, baina Nafarroa eta, batez ere, Iparraldeko datuek erakusten dute eremu horietan euskara galtzeko arrisku gorrian dagoela.


7. Grafikoa: Euskararen erabilera lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Bilakaera erreparatuta, ondorengo grafikoan ikus dezakegu euskaldunen arteko erabilera mantendu egin dela helduen artean. Hogeita hamabost urtetik beherakoan artean, aldiz, erabilerak behera egin du nabarmen. Hau da, elkarrizketa arruntetan hizlari guztiek euskara jakinagatik ere, komunikazio beste hizkuntza batean ematen da.

8. Grafikoa: Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Euskal Herria. 1991-2016 (%)



Argi dago, beraz, ezagutzak gora egin arren, euskararen erabilera erritmo bizian behera egiten ari dela euskaldunen artean, batez ere, gazteen artean. Datu bera dakarkigu jarraian dagoen 1996. urteko grafikoa, non hizkuntza-erabilera eta hizkuntza gaitasuna lotzen dituen. (Hizkuntza politikarako sailordetza, 1996). Beraz, esan liteke arazoa ez dela berria.

9. Grafikoa: Hizkuntza-erabilera hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera




Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Euskaldun tipologia:

Euskaldun tipologiai dagokionez, aldaketa handiak eman dira azken urteotan. Honako grafikoei erreparatuta azken hogeita bost urteotan euskaldunaren tipologia izan duen bilakaera kusiko dugu eta ohartuko gara euskaldun multzoa errotik aldatu dela azken hamarkadetan.

10. Grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea). Euskal Herria, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Lehenik eta behin, jatorrizko elebidun gehiago dago. Nolanahi ere, aldaketa ez da izugarria, hori dela eta, guk ondorengo datuari jarriko diogu arreta: Inolako zalantzarik gabe, esan daiteke gero eta gutxiago direla euskaldun zaharrak eta gero eta gehiago euskaldun berriak. Hots, urte gutxiren buruan euskaldun tipologiaren aldaketa izugarria jazo da.

Hala, 1991n euskaldun berriak gehienez ere laurdenak ziren, gaur egun, berriz, erdiak baino gehiago daude talde horren barruan eta joera ikusirik, pentsatzekoa da laster euskaldun gehienak talde horretan kokatuta egongo direla.

Tipologian aldaketa gertatzea ez da positiboa, ezta negatiboa ere. Bilakaera edo eboluziotzat ulertu behar dugu. Hala eta guztiz ere, bilakaera horrek ondorio batzuk dakartza derrigorrean. Hasteko, euskaldun gehienek lehen hizkuntza ez da euskara, hortaz, pentsa liteke euskaldun horiek hitz egiteko izango duten erraztasuna ez dela berdin-berdina izango haien lehen hizkuntzan eta euskaraz. Gainera, euskaldun berri gehienak inguru erdaldunetan bizi dira, beraz, ez da erraza harreman-sare euskaldunak izatea.

11. Grafikoa: Euskaldunak lehen hizkuntzaren (BILA indizea) eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2016 (%)



Beraz, arestian ikusi dugun bezala, esan daiteke euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen arteko aldea 1991koa baino handiagoa dela 2016an. Horrek lotura du goiko grafikoetan ikusi dugun euskaldunen tipologiarekin. Bi faktorek dute berebiziko garrantzia:


- Harreman-sareko elebidunen dentsitatea.
- Hizkuntza-gaitasun erlatiboa, hau da, hizkuntza batean ala bestean jarduteko erraztasun handiagoa ala txikiagoa.

Euskararen erabileran dentsitateak duen eragina erabakigarria da. Etxeko kide guztiek euskara dakitenean, euskaraz berba egiten da, nagusiki. Etxeko kide bakar batek euskara ez dakienean, aldiz, erdara nagusitzen da familian. Harreman- sarearen eragina handiagoa da etxean lagunartean baino, beraz euskaldunen dentsitateak behera egiten duen neurrian, euskararen erabilera ere gehiago jaitsi da etxean lagunartean baino.

Harreman-sareko euskaldunen dentsitatean atalase-maila deritzoguna dago. Hots, gutxieneko maila horren azpitik ez dago euskararen erabilera ziurtatzerik. Atalase-maila horrek nolabaiteko muga ezartzen digu, gutxieneko baldintza euskaraz egin dadin. Arestian esan bezala, etxean maila hori argia da: denek jakin behar dute euskaraz. Lagunartean, ordea, gutxieneko maila hori ez da hain argia. Horrenbestez, euskararen erabilera ziurta dadin, agian, ez da nahitaezkoa guztiek euskaraz jakitea, baina bai gehienek. Kasu honetan, beste faktore batzuek ere izango dute eragina haututako hizkuntzan, esate baterako, hizkuntzarekiko atxikimendua.

Euskararen erabileran eragiten duen bigarren faktorea hizkuntza- gaitasun erlatiboa da, hots, hizkuntza batean ala bestean jarduteko erraztasun handiagoa ala txikiagoa izatea. Gaur egun, erdal elebidunak, hau da, erdaraz erraztasun handiagoa duten euskaldunak gehiago dira (% 44,5) elebidun orekatuak (% 29,5) edo euskal elebidunak (% 26) baino.


12. Grafikoa: Euskaldunen erraztasuna lurraldearen arabera. Euskal Herria, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Horrek, nola ez, eragin zuzena du hizkuntzaren erabileran. Izan ere, euskaldunen artean ere, gehienak erosoago mintzo dira erdaraz. Euskal elebidun eta erdal elebidunen arteko desberdintasunetako bat lehen hizkuntzarena da. Erdal elebidun gehienek, esan bezala, erdara dute lehen hizkuntza, euskal elebidun gehienek, berriz, euskara. Beraz, lehen hizkuntzaren aldagaia kontuan izanda, euskal elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira eta erdal elebidun gehienak euskaldun berriak.

13. Grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera (BILA indizea). Euskal Herria, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken urteotako euskaldunen hazkundera helduen euskalduntzeari eta hezkuntza-sistemaren zor zaio gehienbat. Beraz, lehen tipologiaren alorrean aipatu dugun bezalaxe, euskaldun berriak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira euskaldunen artean, batez ere gazteen artean. Gazte euskaldun berri horiek eskolan ikasi dute euskara baina familia eta gertuko komunitatea erdaldunak dituzte gehienek.

Hortaz, esan liteke euskaldunen kolektiboa errotik ari dela aldatzen. Lehen hizkuntza euskara duen euskaldunak, gune euskaldunetan bizi eta familia zein lagunartea euskaldunak dituenak gero eta pisu txikiagoa du euskaldunen multzoan. Horren ordez, euskaldun berrien taldea ari da nagusitzen, hau da, lehen hizkuntza euskara ez duena, familia eta lagunartea euskaldunak ez dituen eta gune erdaldunetan bizi dena.

Laburbilduz, esan dezakegu euskararen erabilera, batik bat, eskolan zein euskaltegietan euskaldundutakoen esku dagoela, hori dela eta, kolektibo horiek piztu dute arreta handien azken urteetan. Zalantzarik gabe, gaur egunean, gazte euskaldunek 10-15 urte bitartean sistematikoki egiten duten euskararen bazterketa bihurtu zaigu arazorik handiena. Egoera horri buruz ikertzeko lan mukuru egin da azken urteotan; esate baterako, Larrañaga, N (1995) edo Martinez de Luna, I (2000) eta ehunka egitasmo eta proiektu jarri dira abian egoera hori iraultzeko.; Mintzalagun, hizkide, kuadrillategia, euslider etab.

Esan bezala, lan eder askoak burutzen ari dira egun euskararen erabileraren gainean. Batez ere, gazteen erabilera izan dute aztergai. Lan honen bidez, ordea, euskaldun berrien kolektiboa aztertuko dugu. Izan ere, arestian esan bezala, joera aldaketarik egon ezean, laster euskaldun gehienak euskaldun berriak izango dira. Hori dela eta, azter ditzagun, bada, euskaldun berriek zenbat eta non erabiltzen duten euskara.

Euskaldun berrien erabilera:

1. Taula: Euskaldun berrien erabilera: etxea

Etxeko hizkuntza	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Beti euskaraz	%4.5	%8.4	%7.8	%5.8
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%4.7	%5.4	%2.6	%4.8
Euskaraz erdaraz beste	%9.0	%10.4	%11.7	%9.6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%18.7	%22.8	%32.5	%20.6
Beti erdaraz	%63.1	%53.0	%45.5	%59.3
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Euskaldun berrien datuak aztertzean, oso nabarmen geratzen da, multzo honetan, euskara oso gutxi erabiltzen dela. Lehen jorratutako puntuan esan dugunez, laster, euskaldun berrien taldea izango da nagusi euskaldunen artean. Beraz, euskararen etorkizuna euskaldun berrien esku dago, hein handi batean. Hori dela eta, arretaz erreparatu behar diogu talde honi eta taula edo grafikoetan agertzen diren zenbaki hotzez harago, erabilera urriaren zioak eta ondorioak zein izan daitezkeen aztertzea interesgarria litzateke.

Goiko taulan agertzen diren datuak deigarriak dira, guztiz. Hamar euskaldun berritik seik etxean ez du sekula euskaraz egiten, eta hamarretik zortzik egiten dute euskaraz erdaraz baino gutxiago. Horrek, noski, oso espazio txikia uzten die euskaraz hitz egiten dutenei. Euskaldun berrien artean, etxean, % 6k baino ez du egiten beti euskaraz. Taula honetan badago bitxia den beste datu bat. Denak euskaldun berriak badira ere, Euskal Autonomia erkidegoan jasotzen diren datuak Nafarroan eta Iparraldean jasotzen direnak baino kezkagarriagoak dira, aintzat harturik EAEn euskarak babes handiagoa duela (Legedi zein jendartearen jarreraren aldetik) datuok zer pentsatua ematen dute. Gainerako lur-eremuekin alderatuta EAEn gutxiago dira euskara hutsean aritzen direnak eta gehiago erdara hutsean aritzen direnak.

2. Taula: Euskaldun berrien erabilera: bikotekidearekin

Hizkuntza bikotekidearekin	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Beti euskaraz	%6.5	%14.3	%23.1	%9.6
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%4.9	%4.4	%0	%4.6
Euskaraz erdaraz beste	%8.3	%7.1	%11.5	%8.1
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%17.1	%11.5	%19.2	%15.5
Beti erdaraz	%63.1	%62.6	%46.2	%62.2
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Bigarren taula honek lehenengoaren datu ia berberak eskaintzen dizkigu. Hala eta guztiz ere, bikotekidearekin egiten diren elkarrizketetan are alde handiagoak daude EAEko biztanleen eta Nafarroa zein Iparraldeko biztanleen artean. Hala, esan daiteke Nafarroan eta, batez ere, Iparraldean heldu izanik euskara ikasten dutenek hizkuntza erabiltzeko borondate handiagoa dutela. Alde izugarria dago Iparraldean beti euskaraz ari den % 23.1etik EAEn beti euskaraz egiten duen % 6.5era. Alde handiegia, ez bairik gabe. Beti erdara darabiltenak ere gehiago dira EAEn eta gutxiago Iparraldean. Zein izan liteke lurralde batetik bestera hainbesteko ezberdintasun emateko arrazoia? Egia esan, ezin jakin daiteke ziurtasun osoz. Izan ere, aldagai askok hartzen du parte. Edozelan ere, esango nuke euskaldun berrien helburuak ez direla berdinak batean zein besteetan. Horrela, pentsa liteke egiaztatze-sistemearekin eta motibazio motarekin lotuta egon litekeela. Dirudienez, EAEko

biztanle askok euskara agiria lortutakoan, haien diplomarekin batera, euskaraz hitz egiteko gogoia ere mesanotzeko tiraderan gordetzen dute.

3. Taula: Euskaldun berrien erabilera: Seme-alabekin

Hizkuntza seme-alabekin	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Beti euskaraz	%26.4	%39.4	%34.8	%30.7
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%13.1	%9.1	%17.4	%12
Euskaraz erdaraz beste	%21.6	%20.6	%13	%20.9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%24.1	%12.1	%4.3	%19.6
Beti erdaraz	%14.8	%18.8	%30.4	%16.7
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Hirugarren taulan, seme-alabekin euskaldun berriek darabilten hizkuntza aztertzen dugu. Lehengo bi tauletan euskara hutsez ari zirenak oso gutxi ziren. Taula honetan, baina, kopuruek gora egin dute. Pentsa liteke, helduek haien seme-alaben euskara mailari garrantzia ematen dietela, horrenbestez, bikotekidearekin ez bezala, saiakera egiten dute haurrekin euskaraz egiteko. Lurraldeen arteko alderaketan, beti euskara erabiltzeko borondate handien erakusten dutenak Nafarrak dira; hamarretik lauk euskaraz baino ez du egiten umeekin. Iparraldean jasotzen diren datuak ere ez daude urruti, hango biztanleen erdiek euskara erdara baino gehiago erabiltzen dute seme-alabekin solastatzeko. EAEko biztanleak dira, kasu honetan, epelenak. Gutxiago dira euskaraz baizik egiten ez dutenak, baina, era berean, gutxiago dira beti erdaraz egiten dutenak ere.

Euskaldun berriek haien gurasoekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, lurralde guztietan ia denek erdara darabilte. Dena dela, datua, nire iritziz, ez da esanguratsua, izan ere, euskaldun berrien gurasoak euskara hitzunak izatea ez da ohikoa. Gainera, kasuren batean bi gurasoetako bat euskalduna denean ere, arraroa da haurtzaroan euskara ez irakatsi izana eta helduaroan hizkuntza-ohitura aldatzea eta euskaraz mintzatzea. Hori dela eta, testua taulez eta grafikoz ez betetzeko, ez ditut taula horiek txertatuko. Aski da honakoa datua ematea: Euskal herrian, ehun euskaldun berritik bakarrik egiten du euskaraz gaztelaniaz baino gehiago ama edo aitarekin. Bitxikeria modura, datuak zertxobait hobeak dira aitarekin amarekin baino eta Nafarroan eta Erkidegoan baino hobeak dira Iparraldean.

Lagunekin erabiltzen den hizkuntza aztertzean, lehengo lepotik burua.

4. Taula: Euskaldun berrien erabilera: Lagunekin

Hizkuntza Lagunekin	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Beti euskaraz	%5	%7.5	%9.2	%6
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%9.2	%13	%16.1	%10.7
Euskaraz erdaraz beste	%16.8	%23.9	%25.3	%19.3
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%33	%37	%36.8	%34.4
Beti erdaraz	%36	%18.6	%12.6	%29.6
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Lagunartean ere euskaraz soilik egiten dutenen kopuruak oso baxuak dira. Nolanahi ere, nire aburuz, lehen gurasoekin gertatu bezala, oraingoan ere datu hau ez da harrigarria. Finean, euskalduntzeak harreman-sarea handitzeko aukera eskaintzen badu ere, euskalduntzen denak, normalean, ez du errotik bere ingurua aldatzen. Horregatik, euskaldundu aurretiko hizkuntzari eusten zaio gehienetan. Horrek adierazten du zeinen zaila den hizkuntza-ohiturak aldatzea eta lehen harremana euskaraz egitearen garrantzia gogorarazten digu. Esparru honetan ere, EAEn jasotako datuak gainerako lurraldeetakoak baino kaskarragoak dira.

Orain arte landutako esparru guztiak arlo informalaren barruan sar ditzakegu; etxea, familia, lagunartea. Ondoren aurkeztuko dugun taulan arlo formalari buruzko informazioa eskainiko dugu.

5. Taula: Euskaldun berrien erabilera: Administrazioarekin

Hizkuntza administrazioarekin	EAE	Nafarroa	Iparraldea	Euskal Herria
Beti euskaraz	%17.3	%7.6	%0	%13.3
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%13.8	%3.7	%1.3	%10
Euskaraz erdaraz beste	%14.1	%15.7	%3.9	%13.9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%17.5	%36.2	%9.2	%22.6
Beti erdaraz	%37.3	%36.8	%85.5	%40.2
Guztira	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Testuinguru informaletik formalera egindako jauzian, argi eta garbi ikus dezakegu joera aldaketa. Orain arte, eskasagoak izan dira erkidegoko datuak, kasu honetan, berriz, Iparraldekoak dira baxuenak eta erkidegokoak altuenak. Tamalez, hemen ez dago sekreturik, erkidegoan euskararen erabilera babesten duen legeak ez du indarrik Nafarroan eta Iparraldean. Beraz, Iparraldeko euskal hiztunak, berriak zein zaharrak, babesgabe daude Frantziako estatuak ezarritako legediaren aurrean. Nafarroako egoera oso konplexua da lurraldea hiru zatitan banatzen baita: euskalduna, mistoa eta erdalduna. Dena dela, gaian gehiegi sakondu gabe, esan dezagun Nafarroan ere euskarak ez duela apenas babes juridikorik. Horrenbestez, ez da arraroa Nafarroako eta Iparraldeko biztanleak erdara

erabiltzera behartuak egotea.

Orain arte aztertutako datuek lurralde bakoitzeko biztanleriari jarri diote arreta baina biztanleen artean ez da adinaren gaineko banaketarik egin. Lurralde bereko biztanleek egiten duten euskararen erabilera, baina, oso bestelakoa da norberaren adin-taldearen arabera. Hortaz, hurrengo tauletan euskaldun berrien erabilera aztertuko dugu testuingurua eta adinaren arabera.

Jabetu gara datu guztiek antzeko errealitatea erakusten dutela. Hots, testuinguruak testuinguru, adin-tarte batzuetan oso eskasa da euskararen erabilera. Horregatik, bi taula baino ez ditugu erantsiko, ondorioak ateratzeko nahikoa da-eta.

6. Taula: Euskaldun berrien hizkuntza. Etxean. Adin-tarteka

Etxean	16-24	25-34	35-49	>=50	Guztira
Beti euskaraz	%0	%2.9	%9.4	%8.3	%4.9
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%0.3	%1.9	%8.0	%9.5	%4.5
Euskaraz erdaraz beste	%0.7	%4.6	%18.6	%11.6	%8.8
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%11.9	%14.1	%28.9	%24.0	%19.5
Beti erdaraz	%87.1	%76.5	%35.1	%46.6	%62.2
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Argi eta garbi ikusten denez, adinak aurrera egin ahala euskararen erabilera ere hazten da. Halaber, azpimarragarria da euskaldun berrien artean gazteenak direla euskara gutxien darabiltenak. Ez dago etxean beti euskaraz egiten duen 16-24 urte bitarteko euskaldun berririk eta, adin-tarte horretan, hamarretik ia bederatzik erdara hutsa erabiltzen dute. Erantsiko ez ditudan gainerako taulek ere antzeko datuak dituzte ikusgai, halere, badago salbuespen bat. Lankideekin ematen diren elkarriketei dagokiona, hain zuzen ere.

7. Taula: Euskaldun berrien hizkuntza. Lankideekin. Adin-tarteka

Lankideekin					Guztira
	16-24	25-34	35-49	>=50	
Beti euskaraz	%22.6	%20.4	%18.5	%30.8	%21.5
Euskaraz erdaraz baino gehiago	%6.9	%5	%11.1	%14.3	%9.4
Euskaraz erdaraz beste	%9.8	%21.5	%18.7	%20.7	%19.4
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%16.2	%23.2	%17.2	%20.2	%19.6
Beti erdaraz	%44.5	%29.9	%34.4	%14	%30.2
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Gainerako tauletan ez bezala, adin-talde gazteena da lankideekin euskara gehien erabiltzen duena. Horrek hainbat irakurketa onar ditzake. Nire iritziz, egun, zenbait enpresek lanerako eskatzen duten euskara-maila egiaztatzeko beharrak eragiten du egoera hau. Hots, enpresan euskara-agiria eskatu zaion langileak euskara dakiela erakutsi nahia azal dezake lankide eta nagusien aurrean. Edota, zergatik ez, ingurukoek euskara darabiltelako, borondaterik izan ez arren, euskara erabiltzera behartuta ikustea bere burua.

Euskararekiko jarrerak

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak:

Euskal Herri osoa kontuan hartuz gero, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak igoera argia izan du 25 urtean. 1991n euskal herritarren % 47,5 zegoen euskara sustatzearen alde eta % 55,8 dago gaur egun euskara sustatzearen alde. Aurka dauden ehunekoak, aldiz, 4,9 puntu egin du behera (% 20,9tik % 16ra), eta ez alde ez aurka daudenena 3,5 puntu beherakada izan du (% 31,7tik % 28,2ra). Lurraldeka, azken 25 urteotan, euskararen aldeko jarrerak gora egin du EAEn (10 puntu) eta Nafarroan (11,7 puntu), eta behera Iparraldean (-7 puntu).

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen % 87,1 EAEn, % 82,3 Nafarroan eta % 66,7 Iparraldean. Erdaldun elebazarren artean, aldiz, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak nabarmen gutxiago dira: % 49,7 EAEn, % 22,7 Nafarroan eta % 23,9 Iparraldean.

Euskararen gaineko jarreraren bilakaera lehen hizkuntzaren arabera:

8. Taula: Jarreraren arabeko tipologia

		Aldekoa	Ez alde ez aurka	Aurkakoa	Guztira
2006	LH euskara eta euskalduna	%90,3	%8,9	%0,8	%100
	LH biak eta euskalduna	%89,5	%10,0	%0,5	%100
	LH erdara eta euskalduna	%82,3	%15,4	%2,3	%100
	Guztira	%87,8	%11,0	%1,2	%100
2016	LH euskara eta euskalduna	%90,9	%8,0	%1,1	%100
	LH biak eta euskalduna	%84,2	%13,1	%2,7	%100
	LH erdara eta euskalduna	%77,9	%18,4	%3,6	%100
	Guztira	%85,3	%12,5	%2,2	%100

Iturria; VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016

Dena dela, grafikoan ikus daitekeenez, lehen hezkuntzak ere badu zer esana jarreran. Hala, elebidunen artean, lehen hizkuntza euskara dutenen aldeko jarrera handiagoa da lehen hizkuntza erdara dutenena baino. Azken hamar urteotako bilakaerari arreta jarrita, deigarria da euskara sustatzearen aurkako jarrerak gora egin duela multzo guztietan. Halaber, euskararen alde daudenak gutxiago dira orain, duela hamar urte baino. Nolanahi ere, aldeak ez dira izugarriak.

Zenbait ondorio euskararen egoeraz:

Bukatzeko, arestian agertutako datu anabasa txukundu eta laburtu nahian, honakoak dira egungo egoeran eragiten duten faktore erabakigarriak:

- Euskararen erabilera ez da ezagutza beste hazten ari.
- Euskararen aldeko jarrerak behera egin dute azken hamar urteotan.
- Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak hiztunen gaitasun erlatiboa eta harreman-sareak dira.
- Hezkuntza sistemak eta helduen alfabetatzeak euskaldun tipologia errotik aldatu du azken urteotan. Batez ere, EAEn. Egun, ia euskaldun gehienak euskaldun berriak dira. Laster, gehienak izango dira zalantzarik gabe.
- Euskaldun berrien erabilera oso eskasa da
- Euskaldun berrien erabilera adin-tarteka behatuta, 16-24 urte bitartekoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak testuinguru ia guztietan. Salbuespen bakarra lana da.
- Euskaldun berrien erabilera EAEn Iparraldean eta Nafarroan baino baxuagoa da testuinguru informalean. Altuagoa da, ordea, testuinguru formalean. Hori gertatzeko arrazoiak aztertu behar dira. Honen aurrean egileak bi hipotesi botatzera ausartuko da:
 - Nafarroan eta Iparraldean ez bezala, EAEn euskarak legearen babesa du.
 - EAEn bultzatu den egiaztatze-sistema eta horiek lortzeko motibazio instrumentalak ez du laguntzen erabilera sustatzen, hori dela eta, egoera informalean apenas erabiltzen da eta datuak Nafarroan eta Iparraldean baino eskasagoak dira, non euskara ez dagoen agiriei eta motibazio instrumentalari hain lotua.

Historian oinarritutako ikerketa askok diote gizarte-elebitasuna luzaroan mantentzea ezinezkoa dela eta denbora igaro ahala, bi hizkuntzetako batek bestea mendean hartzen duela, pixkanaka, hizkuntza nagusiak hizkuntza gutxituari erabilera funtzioak kentzen dizkio eta ordezkatu egiten du. Euskarak aurrera egingo badu, inguruko hizkuntza sendoen aurrean tinko eutsi beharko luke. Horretarako, izugarrizko garrantzia du euskararen erabilera areagotzeak eta euskarak betetzen

dituen funtzioak ez galtzeak. Hizkuntza estrategiak eta euskara sustatzeko egitasmoak abian jarri eta euskara jendartearentzat erakargarri izan dadin lan egitea eraginkorra izan liteke.

Hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko motibazioak:

Motibazio hitzaren jatorriari erreparatuta, ohartuko gara latinetik datorkigun elea dela eta mugimenduarekin lotua dagoena. Hortaz, esan liteke zerbait egiteko motibatuta dagoena ez dela gertaerak noiz jazoko zain egongo; aitzitik, xede hori erdiesteko, helburua edozein dela ere, ahalegina egingo du.

Jendartearen portaeraren ikerketan kontzeptu gutxi sortu dute motibazioaren prozesuak besteko interesa eta espektatiba. Siguan-ek (1979) esan zuen bezala, motibaziorik gabe ez dago mugimendurik, ezta aktibitate psikikorik ere, eta ez da posible portaera gertatzea.

Motibazioari buruzko definizio gehienak bat datoz ondokoan: hainbat gauza egitearen ala ez egitearen zioak, edo egiten diren ekintza horiek modu batera ala bestera egiteagatik interesatzen den prozesuen multzoa inplikatzeko du motibazioak.

Gaur egun bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan motibazio hitza behin eta berriro aipatzen da. Izan ere, motibazioaren gaia sakonean ikertu duten askok uste dute ikasleak hizkuntzarekiko duen jarrera erabakigarria izango dela hizkuntza horren jakaskuntzan. Gai horren gainean, Spolskyk (1969: 272-274) bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan garrantzitsuenak diren lau faktoreak azaldu ditu:

1. Hizkuntza ikasteko/irakasteko erabilitako metodologia. Lau faktoreetan kontrolatzen errazena da, hori dela eta, joera handia dago metodoaren azterketa egiteko. Horrek, ordea, arrisku handia dakar, ezin ahaztu baita gainerako faktoreak ere erabakigarriak direla ikaskuntza-prozesuan.
2. Adina faktore erabakigarria dela ia inork ez du zalantzan jartzen. Oro har, ikerlari gehienak bat datoz esaten dutenean nerabegarora arte erraztasun handiagoz ikasten direla hizkuntzak. Hortik aurrera, ordea, prozesuarekin aurrera egiteko arazo gehiago egoten da. Halaber, argi dago, zahartzarotik hurbil hizkuntzak ikastea zailagoa eta nekezagoa dela. Edonola ere, adina faktore garrantzitsua dela onartuagatik ere, ez da erraza bere intzidentzia guztiz zehaztea, askotan pertsonaren baitakoa da-eta.

3. Gaitasuna ere faktore garrantzitsua da. Hori ez du inork zalantzan jartzen. Hala eta guztiz ere, orain dela gutxi arte, ez da egon gaitasun hori modu fidagarrian aztertzeke modurik. Gaur egun, hasi dira esaldiak aztertzeke gaitasuna bezalako parametroak aztertzen.
4. Jarrerak ere zer esan handia du hizkuntza berriaren jabekuntzan. Hala, jarrera hertsiki lotua dago ikaslearen motibazioarekin eta ikas-prozesuan aurkituko duen testuinguruarekin. Hori dela eta, ukaezina da ikaslearen inguruan daudenek (Guraso, ikaskide, irakasle, lankide, lagun etab.) eragin zuzena izango dutela ikaslearen jarreran eta motibazioan.

Azken bost hamarkadetan hainbat ikertzailek (Gardner-Lambert, 1972; Maslow, 1991; Duryberry eta Tucker, 1994) esan dutenez, aldagai emozionalek izugarrizko garrantzia dute bigarren hizkuntzen ikas-prozesuan. Beraz, aldagai emozionalez ari garenean, ikasleak hizkuntza eta kultura berriarekiko zein hizkuntza horren hiltunetikiko sentitzen duena hartu behar dugu aintzat. Horregatik, asko dira motibazioa eta jarrera goraipatzen duten ikertzaileak (Gardner-Lambert, 1972; Gardner, 1982; Harmer, 1989; Spolsky, 1989; Dornyei, 1994). Horiek guztiek, gainera, ikaslearen motibazioaz ez ezik, irakasle eta ikas-prozesuan parte hartzen duten gainerakoen motibazioaz ere mintzo dira.

Beste batzuen iritziz, (Brown, 1975; Scovel, 1978; Green, 1993; Oxford-Shearin, 1994; Clément-Dornyei-Noels, 1994; González-Henriquez, 1997) aldagai emozional horiek ikaslearen auto-estimua, konfiantza-maila eta antsietatearekin daude lotuak, eta horiek ere ikas-prozesu arrakastatsua gauza dadin kontuan hartzekeak dira. Halaber, ikasleek kultura eta hizkuntza berriaren norbanakoekin sortutako harremanek ere funtsezko papera joko dezakete (Brown, 1975; Titone, 1982).

Jasone Cenozek (Cenoz, 1993:29) sailkapen berriagoa egiten du eta atzerriko hizkuntzen eta bigarren hizkuntzen ikas eta irakas-prozesuan erabakigarriak diren beste lau aldagai bereizten ditu. Honakoak dira:

- 1- Aldagai indibidualen barruan koka litezke, besteak beste, ikaslearen adimena edo gaitasuna, inteligentzia edota arrazoitzeke erraztasuna. Norbanakoaren ezaugarri dira, maiz, genetikoak.
- 2- Aldagai sozio-estruturalez jarduten dugunean hainbat faktore har ditzakegu aintzat. Esate baterako, ikaslearen sexua, adina, maila kulturala eta ekonomikoa. Maltzo honetan dauden aldagaiak kanpo-eragileak dira, hots, adina eta sexua izan ezik, gainerakoak ez dira kontrolagarriak baina ikas-prozesuan eragina izango dute.
- 3- Talde edo maltzo honen baitan sar daitezke hizkuntzarekiko eta hiltun-komunitatearekiko ikasleak dituen jarrerak. Zentzu honetan, argi dago ikaslearen ingurukoek hizkuntza berriaren gainean dituzten uste edo iritziek ere zer esana izango dutela. Hala, gurasoek

hizkuntza gutxiesten baldin badute, nekez izango du prestigioa hizkuntza horrek seme-alabentzat. Aldiz, inguruko jende askok ikasi nahi den hizkuntza horri balorea ematen badio, ikasleak ere prestigioa emango dio eta ikas-prozesua erraztuko dio.

- 4- Azken aldagaiak hezkuntza prozesuari ematen dio garrantzia. Hala, ikasle bakoitzaren ikas-prozesua du ardatz multzo honek.

Dena dela, J. Cenozek lau aldagai horien artean hirugarren taldeari ematen dio garrantzirik handiena. Hau da, haren ustez, aldagai psikosozialaren baitan dauden jarrerak eta motibazioak dira prozesu honetan erabakigarrienak. Izan ere, moldatzeko errazagoak dira, eta finean, irakaslearen esku-hartzeak teknika didaktiko, material, gai hautaketa eta beste hainbeste estrategia egokiren bitartez hobetu dezake ikas-prozesua.

Motibazioaz ari garela, hasiera batean ez zen bereizketarik egiten jarrera eta motibazioaren artean. Hala eta guztiz ere, urteek aurrera egin ahala, definizio berriak sortu dira. Egun, beraz, aho batez esan liteke jarrera dela motibazioaren sorrarazle eta motibazioa dela ikas-prozesu arrakastatsuen eragile zuzena. Laburbilduz, jarrerak eragin zuzena dute motibazioaren hazkunde edo murrizketan baina ez dira erabakigarriak ikas-prozesuan. Motibazioa, berriz, jarreraren transmisioan izango dugun garraioa izango da. (Spolsky, 1989: 149; Oller, 1981 : 227).

Motibazioaren prozesuan jarreraren garrantzia ukaezina da. Jarrerak motibazioan gertatzen diren gizabanakoen arteko ezberdintasunen berri ematen digu, eta zalantzarik ez dago jarrerazko oinarri egonkor bat behar dela ekintza konkretu batean, euskara erabiltzea kasu, denbora luzez motibazioa mantentzeko. Hortaz, motibazioak jarrerazko oinarri sendoa duela ezin uka.

Gauzak horrela, motibazioak portaeraren kausazko faktoreetan pentsatzera bultzatzen bagaitu ere, askotan zentzu deskribatzaile hutsaz erabiltzen da. Norbait euskara ikasteko oso motibatua dagoela esaten denean, esate baterako, pertsona horren portaera deskribatuz egiten da baieztapen hori (adibidez, euskara ikasteko ikastaro batean izena ematea). Halere, deskribapenak inoiz ezin ditu azalpenak ordezkatu, nahiz eta oso zehatza izan. Portaerek aktibitate psikikoaren oinarrian dagoen prozesuzko egituraren zantzuak edo aztarnak besterik ez digute ematen, fidagarriak izan daitezkeenak ala ez. Baina portaerek inoiz ez dute portaera arrazoen azalpen zentzudunik ematen. Aurreko adibidean, euskara ikasteko motibazioaz egindako inferentzia okerra izan daiteke eta bere portaerak beste kausa batzuk izan oinarrian, adibidez, nagusiaren aurrean irudi ona ematea.

Harmerrek (1989:3) honela definitu zuen motibazioa: "*some kind of internal drive that encourages somebody to pursue a course of action*". Ildo beretik, Castrok (1991:11) erantsi zuen: "*it is, in fact, a*

complex phenomenon made up of four components: the setting of an objective, the desire to reach that objective, favourable attitude towards a particular activity and effort".

Bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren inguruan, Dulay, Burt eta Krashen (1982:47) autoreek honela definitzen dute motibazioa; ikasleak hizkuntza ikasteko sentitzen duen gurari edo beharra da. Motibazioaren barruan, bi mota bereizi dira tradizionalki: Motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea.

Motibazio instrumentala helburu batekin lotua egon ohi da. Esan daiteke, kasu honetan, ikasleak hizkuntza ikasteari ekin diola diploma bat lortzeko edo lan jakin bat lortzeko. Kanpora begirako motibazioa da.

Motibazio integratzaileak, aldiz, hizkuntza-komunitatean sartzeko desira du xede. Hau da, ikasleak hizkuntza, kultura eta hiztun-komunitate horrekin identifikatu nahi du bere burua. Barrura begirako motibazioa da.

Euskara ikasleen motibazioari buruzko ikerketak:

Arestian ikusi dugun bezala, luze eta sakon idatzi da motibazioaz. Gurean, ordea, ez da erraza euskara eta motibazioa landu dituzten lanak aurkitzea. Kasu honetan, Josu Peralesen uzta oparoak egin dizkigun ekarpenak aintzat hartzeko modukoak dira. Bai ekarpen kopuru aldetik eta baita egindako lanen sakoneragatik ere. Dena dela, jarraian, euskara-ikasleekin egindako lan eta ahaleginen errepasoa egingo dugu:

Era honetako lanetan aitzindari izan zen Da Silvak euskaldun berriek euskara ikasteko arrazoia jakin nahi izan zuen, ikasleen erantzunak argigarriak izan ziren oso. Hala, (Da Silva, 1983:127) inkestatu zituen gehienek bertako hizkuntza zelako erantzun zuten eta lanerako behar zutenak ez ziren %5 era iritsi.

Ildo beretik, Perez de Arribek (1986) euskaltegietako ikasleekin burututako lanean, euskara ikasteko zioak edo kausak zein ziren jakin nahi izan zuen. Ia 700 ikasleri egindako galdeketaren bidez, ondorioztatu zuen motibazio integratzailea zela nagusi. Izan ere, hamar ikasletik zazpik hala adierazi zuten.

Urte berean egindako beste azterlan batean, Martinez-Arinasek (1986) Bilbo inguruko euskaltegietako 100 ikaslerekin egindako lanean, euskara ikasteko arrazoi nagusia lana aurkitzea zela erantzun zuen inkestatuen % 21 ek. Esan daiteke, gaur egungo datuekin alderatuta motibazio instrumentala bere apar-alditik urruti egon arren, dagoeneko ikusten zela nolabaiteko susperraldia. Izan ere, testuinguruak testuinguru, eta datuen fidagarritasuna ezbaian jarri barik, hiru urteren

bueltan %5 etik % 21 era igaro zen motibazio instrumentala euskara ikasteko arrazoi nagusitzat zuten ikasleen kopuruak.

Lehen aipatu dugun Peralesen lehen lana 1989koa da. Honen aitzindari izandako autoreen lanak berretsi zituen Gipuzkoako udal euskaltegietako 434 ikasleri egindako laginketan. Edonola ere, urte gutxiren buruan gertatutako joera aldaketa argi ikus daiteke lan honen bidez. Hizkuntza lorpenak eta noranzkoen arteko erlazioa aztertu zituen Peralesek (1989). Noranzko integratiboa zuen ikasleen kopurua % 45 era jaitsi zen eta noranzko instrumentala zuten ikasleena, aldiz, % 25.7 ra igo zen. Lan honetan, gainera, ondorioztatzen da motibazio motak ez duela eragiten ikasleek lortutako emaitzetan. Hau da, ikas-prozesuari begira, ez da alderik sumatzen motibazio instrumentala ala integratiboa izan.

Urte batzuk geroago, Peralesek berak, Gipuzkoako mendebaldeko udal euskaltegietako ikasleak izan zituen aztergai. Lana, zazpi urte lehenago egindakoaren oso antzekoa izan zen. Kasu honetan, lagina 650 ikaslekoa izan zen. Noranzko instrumentalak zirela-eta ikasten zuten kopurua % 18koa izan zen, bi noranzkoetan modu berean eraginda ikasten ari zinenena % 29koa, eta motibazio integratzailea oinarri zutenak %52 izan ziren. Halaber, urte batzuk lehenago gertatu zen bezala, noranzkoek eta irakasleek emandako kalifikazioek ez zuten korrelaziorik bistaratu. (Perales, 1996).

Goian aipatu berri ditugun bi lan hauen artean, Arratibelek (1994) nolabaiteko korrelazioa aurkitu zuen ikaslearen urratsaren eta orientazio integratzailearen artean. Hala eta guztiz ere, topatutako korrelazio hori estatistikoki ahula da eta ez da egon teoria hori indartu edo berretsi duen lanik.

Euskara ikasleak aztergai harturik egin den lan esanguratsuenetako batean, EAEko administrazioetako langileek euskara ikastean zuten satisfazio edo asebetetze-maila aztertzeo, 1818 ikasleko lagina izan zuen lana burutu zen 98-99 ikasturtean. Lan honek ez du bete-betean motibazioa lantzen, hala eta guztiz ere, galdetegietan zeharka egindako galdera batzuetan ageri da motibazioaren gaia. Datu eta zenbaki anabasa hotzari arreta gehiegi ipini gabe, ondorioztatu zuten euskararekiko abegikortasuna eta atxikimendua oso sendoa zela. Hala, pentsa zitekeenaren aurka, euskara derrigorrean ikastea eta hizkuntza-eskakizunak lortzeko sortutako urduritasunak ez du, lan honen arabera, inolako euskararen kontrako jarrerarik sortu. (Arrieta, Larrañaga, Agirre, Perales, 1999) Hala eta guztiz ere, EAEko administrazioetako langileen euskara-irakasleei galdera horiek egin zitzaizkienean, (ikasleen motibazioak eta jarrerak aztergai zituztenak, alegia) datuak oso bestelakoak izan ziren. Beraz, esan liteke, irakasleak eta ikasleak ez datozela bat. Hau da, ikasle gehienek euskara sustatzearen aldeko jarrera eta motibazio integratzailea aldarrikatzen duten bitartean, irakasleek

uste dute euskararen aldeko ikasleen jarrerak apalagoak direla eta motibazioa instrumentala dela, batez ere. (Perales, 1997).

Bukatzeko, (Perales, 2000) ikas-prozesuan erabakigarriak diren hainbat aldagai (Motibazioaren intentsitatea, noranzko integratzailea edo instrumentala, jarrerak, adina, sexua, ikas-estrategiak etab.) lorpen emaitzetan izan zezaketen eragina neurtu zen. Lan honetan ondorioztatu zen jarrerek ez zutela inolako eraginik, bai, ordea motibazioak eta motibazioaren intentsitateak.

Arestian ikusitako lanak aztertu ostean, bi ondorio nagusi atera daitezke:

Alde batetik, oro har, motibazio integratzailea motibazio instrumentalari gailendu zaio historikoki. Hau da, egin diren lan guztietan, ikertu diren ikasleen artean gehiago izan dira motibazio integratzailea izan dutenak motibazio instrumentala izan dutenak baino. Dena dela, neurtzea zaila bada ere, dirudienez, joera aldaketa gertatzen ari da eta motibazio instrumentalak gero eta pisu handiagoa du ikasleen artean. Hots, ikasleen artean gero eta gutxiago dira motibazio integratzailea dutenak eta gero eta gehiago, oster, motibazio instrumentala dutenak. Beste alde batetik, motibazioa eta ikas-prozesu arrakastatsua edo lorpenak elkartu nahi izan direnean, ez da topatu haien arteko lotura sendorik. Egia da, inoiz, motibazioaren noranzko integratiboak nolabaiteko lotura maila erakutsi duela hizkuntza ikaskuntza lorpenekin lorpen-emaitzekin. Edozelan ere, lotura maila hori espero litekeena baino ahulagoa da, horrenbestez, ez da posible lotura horretatik ondorio sendoak ateratzea lotura ez delako esanguratsua.

Metodologia

Aztertu nahi den gaia ezagutzeko metodologia egokia aukeratzea ezinbestekoa da. Hori dela eta, lan honetan metodologia esperimental eta deduktiboa erabili da. Halaber, emaitzak modu kuantitatiboan zein kualitatiboan neurtu dira. Hasiera bateko diseinuan, modu kuantitatiboa hobetsi zen, izan ere, eredu horrek aukera ematen du emaitzak era argi eta grafiko bidez azaltzeko. Hala eta guztiz ere, irakasleei pasatutako galdetegian, azken galdera irekia egitea erabaki da adituek haien iritzia nahi bezala azal ditzaten. Itaun horretan jasotako hitzak ez dira zenbaki bihurtu, eta metodologia kualitatiboan egiten den legez, bere horretan utzi eta argitara eman dira.

Informazioa biltzeko erabili den teknika galdetegia izan da. Aurrez, euskara aztergai izan duten galdetegiak behatu ondoren, galdetegi berri bi eratzea deliberatu da. Horiek sortzeko aintzat hartu diren irizpideak honakoak izan dira:

Ikasleen galdetegia:

- Ikasleari denbora ez galarazteko, galdera-sorta motza prestatu da. Bost minututan betetzeko modukoa.
- Euskara maila aldetik, ulergarriak diren galderak egin zaizkie ikasleei, zer galdetu den argi eta garbi utziz.
- Inkestatuaren iritzian ez eragiteko, egilearen uste eta sinesmenak alboratu dira.
- Galdera guztiak galdera itxiak izan dira. Hots, aukera mugatu bat eman zaie eta aukera bakarra aukeratu behar izan dute.

Irakasleen galdetegian:

- Irakasleari denbora ez galarazteko, galdera-sorta motza prestatu da. Bost minututan betetzeko modukoa.
- Inkestatuaren iritzian ez eragiteko, egilearen uste eta sinesmenak alboratu dira.
- Galdera ia guztiak galdera itxiak izan dira. Hots, aukera mugatu bat eman zaie eta aukera bakarra aukeratu behar izan dute.
- Galdera ireki bat jarri zaie. Adituak izanik, nahi izanez gero, haien iritzia eman dezaten.

Hizkuntza-plangintza graduondokoan, moduluek aurrera egin ahala, jasotako ezagutza handiagoa izan da eta, maiz, iturri zaharreko jakituria emari berriekin nahastu nahi izan da. Beraz, esan daiteke, hasierako diseinuak garrantzia handia izan duela alferrikako lana ez egiteko. Hala ere, ikerlan hau dinamikoa izan da eta, ezinbestean, sortu diren kezka berriei erantzun nahi izan die.

Parte hartzaileak:

Lan honetako protagonistak euskaldun berri helduak izan dira. Goian hainbat aldiz aipatu den bezala, euskaldun berrien taldeak gero eta leku handiagoa du euskaldunen artean. Hori horrela, argi dago euskararen biziraupena edo galera, hein handi batean, horien esku egongo dela. Horregatik, euskaldun berriei buruzko informazioak interes sozial handia du haiek zehaztu baitezakete euskararen geroa.

Orotara balizko 286 ikasle eta 91 irakasleren laginak jaso dira. Parte hartzaileak lortzea ez da izan lan samurra, ezta gutxiago ere. Ikerketa hau zenbait herritako euskaltegietan kokatu da. Hauexek izan dira ikerketa honetan parte hartu duten euskaltegiak:

Astigarragako AEK euskaltegia, Hernaniko AEK euskaltegia, Urnietako AEK euskaltegia, Oiartzungo AEK euskaltegia, Lezoko AEK euskaltegia, Oreretako (Errenteriako) AEK euskaltegia, Irungo AEK

euskaltegia, Hendaiako AEK euskaltegia, Beasaingo AEK euskaltegia, Andoaingo AEK euskaltegia, Ordiziako AEK euskaltegia, Hernaniko udal euskaltegia, Tolosako udal euskaltegia, Lasarteko udal euskaltegia, Irungo udal euskaltegia, Beasaingo udal euskaltegia eta Lazkaoko Maizpide euskaltegia.

Goiko zerrenda luzeari erreparatuta erraz antzematen da zentro edo ikasgu guztiak Gipuzkoan daudela. Hortaz, esan liteke azterlan honen ondorioek Gipuzkoako zonalde jakin bateko errealitatea baino ez dutela erakusten.

Lanean parte hartu duten ikasle eta irakasle guztiak boluntarioak izan dira eta haien erabakimenaz baliaturiko hautua hartu dute. Ikertzaileak Gipuzkoako hainbat euskaltegi bisitatu ditu eta zentroko arduradunei lanaren berri eman die. Arestian esan bezala, bi galdetegi sortu dira. Bakoitza multzo bati zuzendua.

Ikasleen galdetegia betetzeko gutxieneko euskara-maila eskatu zaie inkestatuei. Kasu honetan, zehaztutako maila B2 izan da. Hau da, ikerketa honetan parte hartu duten ikasleak B2, C1 edo C2 mailan daude. Horrek, ezinbestean, lan honetatik at utzi ditu B2 mailatik beherako ikasle guztiak. Aurreko atal batean; euskararen egoera testuinguruan kokatu nahian atalean ondorioztatutako ideietan azaldu bezala, euskaldun berriek euskara ez erabiltzeko arrazoi nagusietako bat ezagutzamaile eskasa da. Hori dela eta, lan hau egitean gutxieneko maila duten ikasleengana, soilik, jotzea hobetsi da. Horrela, aldagai hori (Maila eskasa izatearena) ekuaziotik ezabatu dugu.

Irakasleen galdetegiari dagokionez, hasiera batean edozein irakaslek betetzea pentsatu zen arren, ohartu ginen galdera batek azken urteotako bilakaerari erreferentzia egiten ziola eta, horrenbestez, gutxieneko eskarmentua hiru urtetan zehaztu da.

Dena dela, galdetegia bete duten irakasleen eskarmentua oso handia da. Esaterako, udal euskaltegietan ez dago hamar urteko eskarmentua baino gutxiago duen irakaslerik eta AEK-ko euskaltegietan ere gutxi dira lan horretan bost-hamar urte baino gutxiago daramatenak.

Orotara, 369 ikasleren galdetegia jaso da. Hala eta guztiz ere, horietatik 83 baztertuak izan dira irizpideak betetzen ez zituztelako. Beraz, balizko 286 galdetegiko lagina eskuratu da ikasleen aldetik eta 91koa irakasleen aldetik.

9.Taula: Parte hartu duten euskaltegiak eta zentro bakoitzean jasotako lagin kopurua

Euskaltegiak	Jasotako lagin kopurua (Ikasle)	Jasotako lagin kopurua (Irakasle)
Astigarragako AEK	21	6
Hernaniko AEK (Hernani, Urnieta)	36	9
Hernaniko UE	33	7
Andoaingo AEK	2	2
Lasarteko AEK	28	5
Lasarteko UE	20	7
Irungo AEK (Irun, Hendaia)	13	5
Irungo UE	11	3
Oiartzungo AEK (Orereta, Oiartzun, Lezo)	47	11
Ordiziako AEK	16	4
Beasaingo AEK	9	3
Beasaingo UE	30	7
Tolosako UE	21	10
Lazkaoko Maizpide euskaltegia	82	12
Guztira	369	91

Lagina lortzeko prozesua

Ikerketako parte hartzaileen erreklutamendua ikertzaileak burutu du. Harremanetan jartzeko bidea honakoa izan da:

Lehenik eta behin, 2019ko apirilaren bukaera aldera, mezu elektronikoko bidez euskaltegietak arduradunekin kontaktua egin da. Mezu horiei erantzunez, euskaltegietak idazkari edo arduradunek bertaratzeko ordutegi aproposa zehaztu diote lanaren egileari.

Maiatzaren aurreneko astean, egilea “parte hartzaileak atalean” agertzen diren euskaltegiakera joan da banan-banan. Aurkezpena egin ostean, zentro bakoitzeko arduradunari lanaren xedea eta aztergaia azaldu zaio labur-labur. Kasu gehienetan, euskaltegiko arduradunarekin jardun du egileak, nolanahi ere, zentro batzuetan idazkari edo irakasle batekin egin da harremana. Lanaren azalpenaren ondotik, galdetegiak erakutsi zaizkie eta horiek betetzeko gutxieneko baldintzak azaldu

zaizkie (Ikasleen kasuan gutxieneko B2 maila eta irakasleen kasuan gutxieneko hiru urteko eskarmentua euskaltegian).

Dena argi eta garbi azalduta egon denean, egileak bere datuak (telefono zenbakia eta helbide elektronikoa) utzi ditu eta bi aste epean laginen bila pasako dela jakinarazi die arduradunei.

Bi aste horiek igaro aurretik egileak deia edota e-maila jaso du euskaltegi batzuetatik galdetegiak prest zeudela esanez. Maiatzaren 16 eta 17 jaso dira inkesta edo galdetegi ia guztiak eta trukean eskerrak eman zaizkie euskaltegiako arduradun, langile eta ikasleei.

Zentro batzuetan nahastea egon da galdetegiekin eta egileak bi bidaia egin behar izan ditu baten ordez. Dena den, oro har, nahiko txukun ibili dira borondatezko langileak. Azken laginak maiatzaren 21ean jaso dira. Aitortu behar da, gainera, aukeratutako datak lanaren egilearentzat aproposak izan arren, ez direla onenak izan euskaltegiako ikasle eta irakasleentzat, azterketak gainean izan dituztelako.

Baztertutakoak eta galdetegiak orri batera ekartzeko modua

Goian esan bezala, hainbat galdetegi baztertu egin dira. Hain zuzen ere, 83. Bazterketaren arrazoi nagusia ama-hizkuntza euskara izatea izan da, izan ere, baldintza horrek euskaldun berrien multzotik kanpo utzi ditu. Inkesta bete duten 70 ikaslek euskara dute ama-hizkuntza eta, horrenbestez, ikerketatik kanpo geratu dira.

Horiez gain, maila nahikoa ez dutelako baztertutako beste 13 ikasle egon dira. Kasu honetan, irakasleren batek ez du lanaren muina ondo ulertu eta maila baxuko ikasleei pasa die galdetegia. Jaso arren, lan honetatik kanpo geratu diren datu horiek ere balioa izan lezakete, edozelan ere, azterketa honetarako aintzat ez hartzea deliberatu da.

Anonimotasuna

Galdetegiak bete dituzten partaideen anonimotasuna erabateko izan da. Are gehiago, egileak ere ez daki zein galdetegik bete duen nor. Gainera, datuen babeserako lege zorrotzak egun sortzen dituen trabak saihesteko asmoz, ikasle eta irakasleei ez zaie eskatu inolako datu esanguratsurik; Ez izenik, ez adinik, ez sexurik. Hortaz, egun, ezinezkoa da jakitea nork bete duen galdetegia eta zer erantzun duen.

Erabili diren galdetegiak:

Lan honetan hainbat bider esan bezala, galdetegiaren aldeko hautua hartu da. Luze eta zabal hitz egin da galdetegiei buruz, jakina denez, mota askotarikoak izan daitezke. Dena dela, kasu honetan gure galdetegiari jarriko diogu arreta.

Gure galdetegiaren gainekoak:

Ehunka galdetegi dago, era guztietakoak eta milaka gairen gainekoak (Barber, Scoff, Zarit). Gureari dagokionez, jarraian atxikitako galdetegiak ikusita esan daiteke ez daukatela aparteko zailtasunik. Hala eta guztiz ere, galdetegiak sortzeko beste galdetegi asko behatu eta aztertu behar izan da. Esate baterako, Siadekok HPS-rentzat erabilitakoak. Baita lan txikiagoak egiteko udalek edo norbanakoek erabilitako galdetegiak ere. Azkenetako galdetegi motzak izatea erabaki da aintzat harturik parte hartzaile guztiak boluntarioak direla. Egileak bilatu du partaideek galdetegiak betetzen lan arina hartzea. Horrenbestez, galdetegi biak bost minutu baino gutxiagotan egin daitezke, inolako arazorik gabe. Era berean, batez ere, ikasleei zuzendutako galdetegian hizkuntza-maila zaindu behar izan da. Hau da, hizkuntza formala erabili da baina ez jasoegia. Hartara, neurri handi batean ziurtatu da ikasleek ondo ulertuko dituztela galdetegiko galderak.

Ikasleen galdetegiari dagokionez, ezer baino lehen, haien bizitokia (Gipuzkoako errealitatea islatzen duela ziurtatzeko), egiten ari diren maila (gutxieneko maila B2koa dela bermatzeko) eta ama-hizkuntza galdetu zaie. Azken honek garrantzia handia du, izan ere, ikasleen artean ama hizkuntza euskara duenik ere bada, kasu horietan inkesta edo galdetegi horiek ez dira euskaldun berrien datuak aztertzeke erabiliko. Lanean parte hartu duten irakasleei, lan-kargarik ez eragiteko, B2 mailatik gorako ikasleei soilik galdetegi pasaztea eskatu zaie, euren ama-hizkuntza edozein delarik ere. Modu horretara, galbahe lana nik neuk egin dut irakasleen lan-sama arintzeko asmoz.

Ikasleen galdetegian lau galdera nagusi eta galdera horien barruko azpi-galderak erabili dira. Itauin bakoitzak xede bat izan du.

Lehen galderaren bidez, egileak ikaslearen **motibazioak** ezagutu nahi izan ditu. Ikasleek aukeran bost erantzun izan dituzte; bi motibazio instrumentalari dagozkionak eta beste hirurak motibazio integratzailearen baitan koka litezkeenak.

Bigarren galderak **erabilera** izan du aztergai. Ikasleei eskatu zaie hainbat esparrutan erabiltzen duten hizkuntza zehaztea. Esparru horien barruan, esan liteke lehenengo biak erabat informalak direla (Etxea eta lagunak), ondorengo biak erdibidean daude formaltasunari dagokionez, (Lantokia eta

herriko dendak) eta azken biek (Osasun-zentroa eta administrazioa) arlo formalari egiten diote erreferentzia.

Hirugarren galderaren bidez, egileak ikasleen euskara maila (edo ikasleen euren buruaren euskara-mailaren gainean duten pertzepzioaz) jakin nahi izan du. Hau da, ikasleek euskaraz hitz egiteko duten **gaitasuna** aztertu nahi izan da. Galdera honen barruan, bigarren mailako bi galdera daude. Lehenak gaitasunaz galdegiten die modu neutroan eta bigarrenak gaitasun hori haien amahizkuntzan duten gaitasunarekin alderatzeko eskatzen zaie.

Laugarren galderak, ikasleen **harreman-sarea** du aztergai. Kasu honetan, euskara erabiltzeko aukera duten jakin nahi izan da. Gipuzkoan ez da egoten arazorik inguru formaletan euskaraz aritzeko, hori dela eta, zehazki galdetu diren esparruak informalak edo neutroak izan dira (etxean, lagunartea, lana eta herria).

Galdetegiaren lehen zirriborroak prestatu zirenean, **jarrerari** buruzko galdera bat ere ageri zen. Azken unean, ordea, erabaki zen galdera horrek ez ziola lanari ekarpenik egingo. Izan ere, jarrerak eta atxikimenduak bigarren hizkuntzaren jabekuntzan garrantzi handia dutela jakitun izanda ere, nekez aurki liteke euskaltegian euskararen aurkako jarrerarik duen ikaslerik. Hau da, behin euskaltegian izena emateko hautua eginda, kontrako jarrera gainditua dagoela ulertu da.

Horrenbestez, sortutako galdetegia motza baina mamitsua dela esan daiteke. Beraz, goikoa labur bilduz, honakoak dira aztergai izan dituen aldagai nagusiak: Motibazioa, erabilera, gaitasuna eta harreman sarea.

Irakasleentzako espresuki sortutako galdetegia are motzagoa da. Kasu honetan, irakasleek haien ikasleen nahiak aztertu behar izan dituzte. Onartu beharra dago irakasle batzuei ez zaiela erraza izan galdetegia betetzea. Izan ere, egia da, era guztietako ikasleak egon litezkeela gela beraren barruan eta galdetegiak, noraezean, orokortzea dakar.

Lehen galderak ikasleen **motibazioaz** galdegiten die. Galdera bera ikasle eta irakasleei egitea ez da kasualitatea. Erantzun haien bidez, alderatu ahal izango da ikasleek haien buruaz diotena eta irakasleek ikasleek diotena.

Bigarren galderak ikasleek dituzten helburuetan aldaketarik gertatu den galdetzen du. Hots, **bilakaeraz** ari da. Erantzuna baiezkoa izan den kasuetan, lehengo eta oraingo helburuak zein diren zehaztea eskatu zaie.

Hirugarren galderaren bidez, jakin nahi izan da (Irakasleen ikuspegitik) ikasleek euskaraz hitz egiteko **harreman-sare** nahikoa duten. Ildo beretik, laugarren galderak gutxieneko maila edo **gaitasuna** duten galdetzen die. Orobat, formatu bereko bosgarren galderak **erabilera** jakin nahi izan du. Hau da, zein da ikasleek gehien darabilten hizkuntza (betiere irakasleen ikuspuntutik).

Azken galdera salbuespena da. Izan ere, orain arteko galdera guztiak itxiak izan dira eta inkestatuari ez zaio aukerarik eman bere iritzia hark aukeratutako hitzez emateko. Honakoa, berriz, galdera irekia da. Galdera horren bidez **egiaztatze-sistema eta erabileraren** arteko lotura zenbatekoa den jakin nahi izan da irakasleen ustez. Azken galdera hau lanaren muinarekin hertsiki lotua dago eta adituen iritzia baliatu nahi izan dira lanaren hipotesiari bultzada edo balaztatzea emateko.

Hortaz, lehentxeago ikasleen galdetegiarekin egin legez, irakasleen galdetegiak honako gaiak ditu aztergai: Motibazioa, helburuen bilakaera, ikasleen harreman-sarea, ikasleen euskara-maila edo gaitasuna, ikasleen erabilera eta egiaztatze-sistema eta erabileraren arteko lotura.

Aurreko edukia aintzat hartuz, galdetegiek aukera emango digute egungo euskararen egoeran erabakigarriak diren aldagai batzuei buruzko emaitzak jaso eta aztertze. Era berean, emaitza horiek aurrez egindako literaturarekin eta inkesta soziolinguistikoak ateratako ondorioekin bat datozen ere aztertuko da.

Lehen esan bezala, galdera irekiaren analisiak lan handiagoa dakar kategoriaka sailkatu ohi delako. Kasu honetan, galdera bakarra izanda ez da halakorik egin eta adituen iritzia bere horretan azaldu da, inolako interferentziarik gabe.

Jo dezagun, beraz, datuen fidagarritasuna aztertzeraz.

Datuen fidagarritasuna:

Ez dago jasotako datuen fidagarritasuna zenbatekoa den jakiteko modurik. Litekeena da ikasleek benetan erabiltzen dutena baino euskara gehiago egiten dutela esan izana, azken finean, ikasleak ez dira ergelak eta ondo dakite euskaltegiko arduradun batek pasatu diela galdetegia. Edonola ere, jasotako lagin handiak eta ateratako emaitzak beste iturri batzuetatik jasotakoekin duten alderagarritasunari esker, datuen benekotasuna eta fidagarritasuna handia dela uste da.

Euskara ikasleen euskararekiko jarrerak eta motibazioak


Ikasleen euskararekiko motibazioak

Lehenik eta behin, **ikasleengandik jasotako emaitzei** erreparatuko diegu.


Motibazioa:

Aurreneko galderak ikasleen motibazioa ezagutzea izan du helburu. Kasu honetan, “zergatik ari zara euskara ikasten” galdera erantzuteko bost erantzun eman zaizkie aukeran. Horietako hiru integratzaileak izan dira eta gainerako biak instrumentalak.

14. Grafikoa: Zergatik ari dira ikasleak euskara ikasten



15. Grafikoa: Zergatik ari dira ikasleak euskara ikasten. Gutxien erantzun dutena




Hamalau eta hamabostgarren grafikoetan ikus dezakegunez, ikasleen motibazio edo nahirik handiena titulua lortzea da. Orotara, galderari ihardetsi dioten 283 ikasleetatik 113k eman dute erantzun hori. Ondoren, lehen aukeratik urrun, Euskal Herriko hizkuntza izatea eta lana aurkitzeko aukera ematea ageri dira eta, azkenik, oso gutxik ikasten dute euskara lagunekin edo familiarekin berba egiteko.

Bigarren grafikoan, zein alderdiri ematen dioten garrantzia gutxien ikus daiteke. Hemen, inolako zalantzarik gabe hautatuena izan den aukera “familiarrekin hitz egitea” izan da. Hortaz, ezbairik gabe esan daiteke egungo euskara-ikasle gehienek ez diotela garrantzirik ematen etxean eta lagunartean euskaraz hitz egiteari.

Motibazio integratzailea eta instrumentalaren arteko bereizketa eginez gero, are errazago ikus daiteke aldea, hala, gaur egun euskara ikasten duten gehienek motibazio instrumentalak eraginda ekiten diote euskara ikasteari.

16. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen motibazioa




Goiko grafiko honek dakarkigun emaitza ez dator bat aurrez egindako lanekin. Izan ere, Da Silvak (1983), Perez de Arribek (1986), Martinez-Arinasek (1986) eta Peralesek (1996) esaten zuten motibazio integratzailea zela nagusi euskara ikasle helduen artean. Datu horrek, beraz, egilearen usteari hauspoa ematen dio eta azken urteotan eman den bilakaera mahai gainean jartzen du.

Erabilera:

Motibazioa alde batera utzi eta goazen lanean parte hartu duten boluntarioen euskararen erabilera aztertzea. Tamalez, ikerketa honetan jasotako datuak bat datoz goiko atal teorikoan ageri diren


euskaldun berrien erabilerari buruzko datuekin. Lehen irakurraldian esan daiteke erabilera apala dela esparru guztietan, hala ere, jarraian ikusiko dugun bezalaxe, badago aldea eremu batetik bestera. Ikus dezagun bada, erabilera hori zenbatekoa den gune edo esparru bakoitzean:

17. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen etxeko erabilera




Etxeko hizkuntzari dagokionez, argi dago etxean euskara erabiltzen duen euskaldun berri kopurua ez dela handia. Kasu honetan ozta-ozta iristen da % 15era. Hala, euskata heldutan ikasi dutenen artean, hamarretik zortzik gaztelaniaz egiten jarraitzen du familia giroko teiltupean.

18. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen lagunarteko erabilera



Are apalagoa da euskara lagunartean erabiltzeko ohitura. Esparru guztien artean, lagunartea da, hain zuzen ere, euskaldun berrien erabileran daturik kaskarrenak ematen dituenena. Ez da % 13ra iristen.

19. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen lantokiko erabilera




Lantokian, aldiz, joera aldaketa ikus daiteke. Euskararen erabilera ia-ia bikoiztu egiten da etxeko zein lagunarteko erabilerarekin alderatuta.

20. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera herriko dendetan




Herriko dendetan lortzen dira euskararen aldeko erabilera-mailarik altuenak. Esparru honetan, euskaldun berrien heren batek euskaraz egiten du. Oraindik gaztelaniaren erabilerarengandik urruti samar egonik ere, alde ederra dago etxeko eta, batez ere, lagunarteko erabilerarekin.

21. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera administrazioan



Administrazioan lortutako datuak lantokian eskuratutakoen oso antzekoak dira. Hala, gutxi gorabehera euskaldun berrien laurden batek egiten du euskaraz administrazioan, hots, etxean eta lagunartean baino gehiago eta dendetan baino gutxiago.

22. Grafikoa: Aztertutako euskara-ikasleen erabilera osasun-zentroan



Azkenik, osasun-zentroko hizkuntza nagusia ere gaztelania da inolako zalantzarik gabe. Euskara erabiltzen dutenen kopurua % 20 pasatxokoa da.

Goiko datuak laburbilduz, esan daiteke gaztelania dela nagusi esparru guztietan eta, oraindik ere, euskararen erabilera oso baxua dela. Edonola ere, aldea dago inguru formal eta informalaren artean, izan ere, inguru informalean (etxean eta lagunartean) eskuratzen dira daturik apalenak eta inguru formal edo neutroetan, berriz, areagotzen da euskararen erabilera. Euskara etxeko hizkuntza izatetik, urte gutxiren buruan, eremu formaleko hizkuntza izatera pasa da.

Gaitasuna:


Ikasleen euskara-maila jakiteko, euskaraz zer moduz moldatzen diren galdetu zaie. Hala eta guztiz ere, ezer baino lehen, aintzat hartu behar dugu ikerlan honetan maila baxuko ikasleak baztertu egin ditugula, hortaz, B2 mailatik gorako ikasleek baino ez dute bete galdetegia. Hauxe dio Europako marko teorikoak B2-C1 eta C2 mailaz.

10. Taula: Europako markoa erreferentzia maila bateratuak

M I N T Z A M E N A	Ahozko elkarreragina	B2	C1	C2
	Ahozko adierazpena	Gai naiz jatorrizko hitzun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte edo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. Badakit neure ideia eta iritziak zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebezia lotzen.	Gai naiz ahalegin handirik egin gabe, edozein elkarrizketan edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebezia konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
		Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz. Gai naiz gaur eguneko gorabeheren gainean nire ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan., horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.


Iturria: Europako erreferentzia markoa: Erreferentzia maila bateratuak: eskala orokorra

Beraz, esan genezake ikasleen maila erabat ziurtatuta dagoela. Nolanahi ere, ikus ditzagun ikasleen erantzunetatik ateratako emaitzak. Gaitasunari buruzko bi galdera egin zaizkie. Lehenengo galderak hala dio: Zer moduz egiten duzu euskaraz?

23. Grafikoa: Zer moduz egiten duzu euskaraz galderari erantzuna

Argi dago, beraz, euskara ikasle askok onartzen dutela, batzuetan, nahi dutena adierazteko zailtasunak dituztela.

Haien euskara-maila euren ama-hizkuntzaren euskara-mailarekin alderatzeko eskatu zaienean honakoak izan dira emaitzak:


24. Grafikoa: Zer moduz egiten duzu euskaraz zure ama-hizkuntzarekin alderatuta

Zalantzarik gabe, ikasle gehienak erosoago eta errazago moldatzen dira euren ama-hizkuntzan (gehienetan gaztelania) euskara erabiltzen baino. Edozelan ere, kontrakoa litzateke harritzekoa, hau da, arrunta da norberaren ama-hizkuntzan beste edozein hizkuntzatan baino errazago aritzea. Hala ere, ia inkestatuen erdiek esan dute gai arruntetan inolako arazorik gabe moldatzen direla.

Harreman-sarea:

Gipuzkoan burutu den lana izanik, pentsatzekoa da bertako ikasleek euskaraz egiteko aukera izango dutela. Dena dela, ezin jakintzat eman galdetu aurretik. Datuak argigarriak dira eta erakusten dute euskara erabiltzen ez duenak ezin duela inguru erdalduna aitzakiatzat hartu, izan ere, inkestatu gehienek esan dutenez, badute euskaraz jarduteko beta. Agian, egoera bestelakoa litzateke Araban, Iparraldean, Nafarroan edo Bizkaiko zenbait tokitan.

25. Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera etxean




Hogeita bosgarren grafikoan ageri diren datuek esan dute, ikertutako ikasleen artean, bi herenek abagunea dutela euren etxean euskaraz egiteko. Gainera, inguru guztien artean etxea da aukera gutxien ematen duena, beraz, datu horrek aurreratzen digu Gipuzkoako euskaltegietan euskara ikasten ari diren heldu gehienek euskara erabil dezaketela nahi izanez gero.

26. Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera lagunartean




Ilido beretik, ikus dezakegu ikertutako ikasleen hiru laurden baino gehiagok duela beta lagunarten euskaraz aritzeko.

27. Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera lantokian




Hogeita sei eta hogeita zazpigarren grafikoak oso antzekoak dira. Ia bikiak. Hala ere, lanean euskaraz egiteko aukera dutenak lagunartean aukera dutenak baino are gehiago dira. Kasu honetan, hamarretik zortzik euskaraz egin lezakete lanean.







28. Grafikoa: Euskaraz egiteko aukera herrian

Are hobe da azken grafikoan jasotako datua. Herrian %90etik gertu du aukera euskaraz egiteko. Laburbilduz, goiko grafikoetan ikusten den bezala, ikasleek aukera dute euskaraz aritzeko. Halere, onartu beharra dago, galdetegia bete dutenen artean, heren batek ez daukala aukerarik etxean euskaraz egiteko eta ia laurden batek ez duela lagunartean euskaraz hitz egiteko modurik. Lantokian eta herrian, ia denek aitortzen dute euskaraz egin dezaketela. Ikerlan honek hainbat herritatik jaso du lagina eta pentsatzekoa da alde handia egon litekeela Oiartzun edo Tolosatik Irun edo Lasartera. Hala ere, herrixkako sailkapenik egin ez bada ere, egileak datuak pikatu ahala ikusi du ez dela herrien arteko desoreka handirik eman. Aitzitik, jasotako datuak antzekoak izan dira herri gehienetan.

Motibazioa eta erabileraren arteko lotura:

Ikasleei dagozkien emaitzetatik erdietsitako datuak aztertzen bukatu aitzin, saia gaitezen motibazioaren eta erabileraren artean egon litekeen lotura zehazten. Jarraian, erabileraren atalean erabilitako grafikoak erabiliko ditugu baina, oraingoan lagin osoa erabili beharrean, motibazio motaren arabera sailkatuko ditugu. Hau da, ikusiko dugu motibazio instrumentala dutenak eta motibazio integratzailea dutenak zenbat erabiltzen duten euskara eremuka eta, horrez gain, saiatuko gara datuok konparatzen.

29. Grafikoa : Motibazio instrumentala eta integratzailea dutenen arteko konparaketaⁱ

	MOTIBAZIO INSTRUMENTALA	MOTIBAZIO INTEGRATZAILE
H E R R I K O D E N D E T A N	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat
A D M I N I S T R A Z I O A N	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat
O S A S U N - Z E N T R O A N	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat	Erabilera  - Euskara - Gaztelania - Beste bat


Grafikoak elkarren ondoan jarrita oso agerikoa da ezkerreko zutabeen, hau da, motibazio instrumentalari dagokion zutabeen, baxuagoa dela erabilera. Eskuineko habearekin alderatzen dugunean, ohartzen gara, inolako zalantzarik gabe, motibazio integratzailea dutenek gehiago erabiltzen dutela euskara esparru guztiguztietan. Datu horiek bat datoz egilearen hasierako hipotesiarekin, hots, euskara ikasteko motibazio instrumentala dutenek apenas erabiltzen dute euskara eta oso ekarpen txikia egiten diote euskara-munduari. Horrek, ordea, ez du esan nahi motibazio instrumentala gutxietsi behar dugunik, euskarari balio instrumentala eranstea ez da txarra, arazoa da hori baino ez izatea; alegia, balio instrumentala izateaz gain, lortu beharra dago euskara hizkuntza bizia izatea, eta jendeak ikasi nahi izatea ere bai. Eskuineko zutabeko datuetan ere badago zer hobetua, edozelan ere, argi dago motibazio integratzailea bultzatzeak ekarpen handiagoa egiten diola euskararen erabilerari.

Irakasleen euskararekiko motibazioak:

Jarraian, **irakasleengandik jasotako emaitzei** ipiniko diegu arreta. Kasu honetan, guztira, irakasleen 91 balizko lagin jaso dira eta datu horietatik atera dira honako emaitzak. Eman diezaiozun hasiera motibazio atalarekin.


Motibazioa:

30. Grafikoa: Irakasleen motibazioa irakasleen arabera



Galdera berean ikasleen azken aukera irakasleen arabera:

31. Grafikoa: Ikasleen motibazioan garrantzia gutxien duen aldagaia irakasleen arabera




32. Grafikoa: Euskara ikasleen motibazio mota irakasleen arabera



Ikusten denez, irakasleak ere bat datoz ikasleek aurrez erantzundakoarekin. Hala, gaur egungo euskara-ikasleen artean motibazio instrumentala da nagusi. Are gehiago, irakasleen esanetan, euskaltegira hurbiltzen diren ikasleen arteko hiru laurden baino gehiagoren motibazioa instrumentala da, horrenbestez, motibazio integratzailea dutenak ez dira iristen % 25era.

Kasu horretan, ikasleek eta irakasleek galdera berean erantzun dutena alderatzen badugu, ikus dezakegu, oro har, emaitzak bat datozela baina irakasleen arabera motibazio instrumentalak ikasleek diotena baino garrantzia handiagoa duela.

33. Grafikoa: Ikasleen motibazioa ikasle eta irakasleen arabera




Goian agertzen dena ez da berria. Lan honen marko teorikoan azaldu dugunez, aurretik egindako lan honetan, (Perales, 1997) ikasle gehienek euskara sustatzearen aldeko jarrera eta motibazio integratzailea aldarrikatzen duten bitartean, irakasleek uste dute euskararen aldeko ikasleen jarrerak apalagoak direla eta motibazioa, batez ere, instrumentala dela. Zentzu horretan, hemen jasotako emaitzek bat egiten dute Peraselek duela bi hamarkada baino gehiago esandakoarekin.

Datu honek badu nolabaiteko lotura euskaltegietan azken hamarkadetan egon den helburu-aldaketa eta bilakaerarekin. Hala eta guztiz ere, irakasle batzuek ez dute helburu-aldaketarik ikusi azken urteetan. Ikus ditzagun datuak.


Bilakaera:

Jarraian euskara ikasteen ikasleen motibazioaren bilakaera aztertuko dugu.


34. Grafikoa: Irakasleak ikasleen aldetik eskolak ematen hasi zirenetik antzeman dituzten helburu aldaketarik

Bilakaera hori ikusi dutenen artean, lehengo helburuak eta oraingo helburuak zein diren galdetu zaienean, erdietsi diren emaitzak ezin argigarriagoak dira. Izan ere, lehengo ikasleen nahia mintzamina lantzea eta sozializatzea zen, batez ere. Neurri txikiagoan zuten azterketa edo gramatika lantzeko guraria. Gaur egungo ikasleen nahiak, aldiz, erabat bestelakoak dira. Irakasleen arabera, ia ikasle guztien helburua azterketa prestatzea da. Bitxia da gainera, egiaztatze-sistema berriaren eraginez, maila baxuko ikasleek ere azterketa prestatzeko dinamikan sartu nahi izatea, oraindik ere, euskaraz hiru esaldi esateko gai ez direnean. Gaur egun euskaltegietan erabiltzen den mailaketa sistema Europako markoaren sistema du erreferente, horrenbestez, A1 mailatik C2rako ibilbidea egin daiteke. Sistema hori gurean ezarri aurretik, gaur egun B1 mailatzat ulertzen dugun hizkuntza-ezagutza izan arte, inork gutxik hitz egiten zuen azterketaz edo maila egiaztatzeaz. Argi dago, ostera, egoera errotik aldatu dela, hori dela eta, euskaltegien betebeharra ere aldatu egin da eta euskara bere osotasunean irakatsi beharrean, orain, azterketa gainditzeko oinarrizko teknikak, estrategiak eta ezagutzak jakiteari ematen zaio garrantzia, tamalez.

35. Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleak euskaltegira joatean zuten helburua, lehen.




36. Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleak euskaltegira joatean duten helburua, orain.



Irakasleei galdetu zaienean euren ikasleek harreman sare eta maila nahikoa duten euskaraz hitz egiteko, honako datuak jaso ditugu.

Harreman-sareak:

37. Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleen harreman-sarea



Gaitasuna:

38. Grafikoa: Irakasleen arabera ikasleen euskara-maila




Mailari dagokionez, irakasleak bat datoz. Zailtasunak zailtasun ikasleek badute maila aski euskaraz hitz egiteko. Harreman-sarearen gainean, berriz, irakasleak ez daude ados. Hala, gehienek harreman-sare nahikoa dutela baieztatzen badute ere, beste askok ezetz uste dute. Zentzu honetan, bitxia da ikasleen erantzunekin alderatuta alde handia dagoela. Izan ere, ikasleek esan dutenez, aukera dute ia edonon euskaraz egiteko, ezagutza, ordea, ez daukate nahi bezain altua. Irakasleek aurkakoa erantzun dute, hau da, maila nahikoa dutela onartu dute baina zalantzak izan dituzte harreman-sareari dagokionez.


Euskaltegiko ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza irakasleei galdetuta, ikus dezakegu, oso gutxiren eguneroko hizkuntza dela euskara.

Erabilera:

39. Grafikoa: Ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza irakasleen arabera



Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da goiko grafikoaren arabera, gaztelaniaz egiten duten batzuek, agian, ez dutela maila nahikoa ala harreman-sare nahikoa euskaraz hitz egiteko. Horregatik, ondorengo grafikoan, euskara-maila nahikoa eta harreman-sare nahikoa dutenen hizkuntza nagusia aztertuko dugu.

40. Grafikoa: Irakasleen arabera harreman-sare eta hizkuntza-maila nahikoa dutenen hizkuntzarik erabiliena


Ikusten dugunez, euskararen erabilerak zertxobait gora egiten duen arren, apenas dago aldaketatik aurreko grafikoarekin. Beraz, esan daiteke, euskaldun berriek euskara ez erabiltzeko aipatzen dituzten bi arrazoi nagusiak (euskara-maila nahikoa ez izatea eta harreman-sare nahikoa ez izatea) aitzakiak baino ez direla. Horren aldeko teoria berresteko goiko grafikoari begiratu azkarra ematea baino ez dago.

Euskararen erabilerari buruzko adierazpenak:

Irakasleei egindako galdera irekiak hala dio:

“Zure ustez euskara-maila egiaztatzea lotuta al dago euskara erabiltzearekin?”

Hogeita zortzi irakaslek ez diote galderari erantzun edo ez dute erantzuna argudiatu. Hala, 28 horietatik:

- 3k ez dute erantzun.
- 2k “Bai” jarri dute arrazoitu barik.
- 23k “Ez” jarri dute arrazoitu barik.

Galderari erantzun osoagoa eman dioten irakasleen erantzunak hementxe atxiki ditut irakurgai (Hitzez hitz irakasleek idatzi duten bezala)

Erantzunak errazago irakurtzeko sailkapen txikia egin da eta lau azpimultzo zehaztu dira.

- Ezezkoak (53)
- Maila txikian lotura aitortzen diotenak (4)
- Baiezkoak (2)
- Galdera kontrako zentzuan ulertu dutenak (4)

Ezezkoak:

1. “Zoritxarrez, ez”

2. “Ez. Maila egiaztatzeak ez du erabilera bermatzen. Horren adibide dira administrazio langile asko.”

3. “Ez. Euskara maila egiaztatzea lana aurkitzearekin nahiz titulua lortzearekin dagoela lotua esango nuke, eta ez erabilerarekin.”

Egilearen hipotesiarekin bat eginik, hirugarren iruzkinak azaltzen du maila egiaztatu beharrak ez dakarkiola euskararen erabilerari berezko hazkunderik.

4. “Egiaztatzeko oraingo sistemarekin ez. Ahalegin handia eskatzen die egiaztatzeak eta horrek ez erabiltzera bultzatzen dituela esaten dute. Beren burua zurrizteko erabiltzen dute argudio hori.”

Laugarren iruzkinaren egilea are urrutiago doa, haren ustez egiaztatze sistemak mesede egin beharrean, kalte egiten dio euskararen erabilerari.

5. “Ez. Askok behin maila egiaztatuta ez dute erabiltzen egunerokotasunean, helburu nagusia titulua lortzea baita lanposturen baterako.”

Bosgarren iruzkinaren egileak ere titulua eta lanarekin lotzen du egiaztatzea. Ez, ordea, erabilerarekin.

6. “Ez. Egon beharko luke, baina ez dago”

7. “Ez titulua lortuta ere, ez dute **hizkuntza ohitura aldatzen**, beraz, ez da euskararen erabilera bermatzen. Ikasle askok ez du hizkuntzarekiko **atxikimendurik** eta hori da arazoa.”

Iruzkin honetan soziolinguistikan esanguratsuak diren bi hitz-gako agertzen dira. Atxikimendua eta hizkuntza-ohitura aldatzea.

8. “Ez. Titulua izateak ez du erabilera bermatzen. Konfiantza eta inguru euskalduna izatea garrantzitsua iruditzen zait, baina azken batean, **borondate** kontua da.”

Zortzigarren iruzkinaren egileak hain entzuna ez den baina pertsonon erabakietan garrantzia handia duen beste termino bat azaltzen du; borondatea.

9. “Ez. Egia da maila ona izateak gehiago erabiltzea dakarrela askotan, baina maila altuko ikasle gehienek titulua nahi dute lan aukera gehiago izateko, **hizkuntza-ohiturak aldatzeko** batere asmorik gabe.”

Bederatzigarren iruzkingilearen iritziz, askotan, maila onak izateak erabilera areagotzea dakar.

10. “Ez, maila egiaztatzeak ez du erabilera bermatzen. Askok eta askok, maila egiaztatu ostean, euskara erabiltzeari uzten diote.

11. “Oro har, esango nuke behin titulua lortuta, erabilerak ez duela gora egiten.”

12. “Inolaz ere ez. Prozesu paraleloak izan daitezke baina ez dute zertan.”

13. “Maila egiaztatzeak ez du erabilera bermatzen.”

14. “Ez, inondik inola ere ez.”

15. “Askotan helburua lortzen dutenean euskaraz hitz egiteari uzten diote, izan ere, euskaltegitik kanpo ez dute behar adinako **harreman-sarerik**”

Hamabosgarren iruzkingilearen ustez harreman-sarerik ez izatea da euskara ez erabiltzeko arazoetako bat.

16. “Ez. Egiaztatu nahi duen ikasle askok ez du gelatik kanpo erabiltzen eta, alderantziz, askotan gertatu da egiaztatu behar ez duenak oso erabilera altua izatea.”

Iritzi honen egileak ez du motibazio hitza aipatzen, halere, hitzon atzean irakur litekeena horixe da. Motibazio instrumentala duenak motibazio integratzailea duenak baino gutxiago erabiltzen duela. Uste hau lanaren egilearen hasierako hipotesiarekin eta jasotako emaitzekin bat dator.

17. “Inola ere ez, askok kaxoi batean sartzeko nahi dute. Gutxi batzuk dira salbuespen.”

18. “Ez. Egiaztatzea gauza bat da. Horrek ez du esan nahi titulua ateratzen denean, ikasleak euskara gehiago erabakiko duenik. Egiaztatzeak gaitasuna dutela baino ez du baieztatzen, besterik ez.”

Hamazortzigarren iruzkinaren egileak ez du ikusten gaitasuna eta erabileraren arteko loturarik.

19. “Maila izateak ez du erabilera bermatzen. Hori neurri handi batean ikasleen inguruaren araberakoa izaten da. Dena dela, maila lortzeak, behar ez dutenei hauspoa ematen die.”

20. “Ez. Askorentzat egiaztagiria da helburua eta ez luke hala behar.”

21. “Lagundu dezake, baina ez dago zuzenean lotuta. Ikasle askok lanerako egiaztatu nahi izaten dute euskara mailaren bat (eta klasean erabiltzen dute baina) beren bizitza pribatuan ez du beti eraginik izaten. Erabileran eragin handiagoan dute bestelako **motibazioekin**, umeekin euskaraz hitz egin nahi izatea, familia euskalduna izatea, koadrila ”

Iruzingile honek motibazioa eta ingurua aipatzen ditu erabileran eragingo duten aldagaien artean.

22. “Ez, du zertan. **Inguruak** pisu handiagoa du”

23. “Ez, gehienetan, ez”

24. “Ez. Euskara maila egiaztatzea lotuta dago lan merkatuan aukera hobeak izatearekin”

25. “Ez. Maila egiaztatzeko probak testuinguru oso formaletarako izaten baitira”

Hogeita bosgarren iritziak azterketa ereduari kritika egiten dio. Izan ere, testuinguru formaletarako direla esaten du eta egunerokotasunetik oso urruti.

26. “Ez. Maila egiaztatzean ere ikasle batzuek ez dute erabilera areagotzen. Batzuetan lanean **giro** euskaldunak du lotura gehien erabilerarekin”

Beste hitz interesgarri bat. Giro, harreman-sarea, ingurua. Adituek maiz aipatu dituzte hitzok.

27. “Ez. Titulu bat ateratzeko maila izateak ez du inola ere bermatzen pertsona horrek euskara erabiliko duenik”

28. “Ez. Maila egiaztatzeak ez du erabilera bermatzen inondik inora”

29. “Inola ere ez”

30. “Ez, azterketa prestatu nahi dutenen kasuan batez ere”

31. “Kasu batzuetan bai, baina orokorrean ez”

32. “Ez. Euskara maila ona izateak ez du erabileran eragiten. Erabilera borondatearekin lotuta dago, horregatik, gehiago hitz egiten dutenak herrian **integratu** nahi dutenak dira, euskara-maila edozein dela ere”

Hogeita hamabigarren iruzkingileak borondatea eta integratzeko nahia goraipatzen ditu eta gaitasunaren garrantzia gutxiesten du erabileran eraginik ez duelakoan.

33. “Ez. Lanarekiko helburua izanez, askotan, egiaztatze-maila da behar dutena.”

34. “Ez. Euskara maila jakina izateak ez du erabiliko denik adierazten”

35. “Garbi dago ezetz”

36. Ez. Inondik inora ere ez. Erabilera inguruan euskaraz bizi den sare bat izatearekin lotuta dago, familia, lagunartea eta lanean bereziki.

37. Ez. Inola ere ez.

38. Ez. Egiaztatze-sistemak gaitasuna neurtzen du eta ez benetako erabilera.

Iruzkina honen atzean azterketa ereduari egindako kritika antzematen dut. Gaitasuna neurtu beharrean ba al dago egileak aipatzen duen benetako erabilera neurtzerik?

39. Ez. Are gehiago, zenbait kasutan kaltegarria ere bada.

40. Ez. Beharko luke, baina ...

41. Euskara-maila egiaztatu nahi duten ikasle gehienek azterketa dute helburu, ez, ordea, euskara erabiltzea. Lanean ez bada, ez dute erabiltzen.

42. Ez dut uste. Euskara maila egiaztatzea titulua lortzearekin lotuago ikusten dut erabiltzearekin baino.

43. Ez. Nik uste lotura handiagoa duela hizkuntza ohituren aldaketarekin beste ezerekin baino.

44. Egiaztatza bakarrak datoz, beraz, ez dute erabiltzen. Erabiltzen duten askok azterketa prestatzeko bakarrak. Salbuespenak salbuespen, jakina.

45. Ez. Nire ustez euskara erabiltzea **gogoarekin** dago lotua, behin euskaraz moldatzeko adineko mailarekin, noski.

Berroigeita bosgarren iruzkingileak gutxieneko maila behar dela esaten du baina euskara erabiltzeko baldintzatza gogoa jotzen du.

46. Ez. Motibazioak eta helburuak gehiago eragingo dio euskara erabiltzean.

47. Ez. Bi gauza desberdin dira.

48. Ez. Egiaztatzaek ez du ziurtatzen erabilpena.

49. Ez. Bi gauza desberdin direla uste dut.

50. Ez, inola ere ez. Ikasle askok euskara erabiltzen dute egiaztatze-maila lortu arte. Gero, erabat uzten diote euskara hitz egiteari; hala ere, uste dut ez dagoela orokortzerik, denetik dago, eta badira jendearekin eta ingurukoekin hitz egiteko ikasten dutenak.

51. Ez. Gaur egun egiaztatze sistemarekin, elkarrengandik urrun daude erabilera eta egiaztatzea.

Gaur egungo egiaztatze-sistemak ez du erabileran eragiten.

52. Ez. Segurtasuna ematen dien arren, erabilera ez du ziurtatzen, inondik inora. Hizkuntzaren bizitza kalean dago, ahoan eta ez tituluetakoz zigiluetan.

Hizkuntzaren bizitza kalean eta ahoan kokatzen du iruzkinaren egileak. Euskarak jauzia egin behar du eremu formaletik informalera. Liburutik ahoan, eskolako gelatik eskolako patiora.

53. Ez. Hizkuntza ikasteko duten motibazioaren araberakoa da gero klasetik kanpo duten erabilera.

Gradu edo lotura maila (txikia) aitortzen diotenak:

1. Bai, baina ez guztiz, hau da: Batetik euskara erabiltzea beharrezkoa da ahozko gaitasuna lortzeko. Bestetik ikasleek azterketako ariketak ondo egiteko teknikak eta estrategiak lantzen dituzte, erabilera aldatik dituzten gabeziak estaltzeko, esate baterako, sarrerak eta bukaerak buruz ikasi, egitura eta esamolde batzuk beti erabiltzeko prest izan, komodinak, azken batean”
2. “ Zuzenean ez. Baina euskaltegiaren **jokabideak** eta ikaslearen ingurunea “aktibatzen” asmatzeak lagundu dezake erabileran, eragin dezake.”
3. “Ezinbestean. Bestelakoa da egiaztatze horri begira erabiltzeak gure egunerokotasunean duen garrantzia.”
4. Ez, baina egia da euskara tituluen aitzakiarekin maila txukuna lortu eta euskararen erabileran aurrera egiteko aukera gehiago dituztela.

Baizkoak:

1. “Zalantzarik gabe. Esanguratsuak zaizkien pertsonekin ohitura-aldaketak bizi ondoren, euskaltegitan beste **jarrera** batzuk ikusten dira”
2. “Jakina!! Inongo zalantzarik gabe!”

Ez dute ulertu: Galdera kontrako noranzkoan ulertu dute.

1. “ Nire ustez, euskara erabiltzen duenak errazago gaindi dezake euskara maila egiaztatzeko azterketa”
2. “Bai, zenbat eta gehiago erabili euskara, orduan eta errazago euskara-maila egiaztatzea”
3. “Neurri handi batean bai. Edozein hizkuntza ikasteko prozesuarekin gertatzen da: Erabili ezean, nekez ikasi edo hobetuko dugu gure maila. Euskararen kasuan ere bai. Astero euskaltegira etorrita ere, erabili ezean, alferrik.”
4. Ez beti. Ikaslea langilea eta saiatua bada, euskaltegiko lana eginda maila egiaztatzea lor dezake.

Goian argi eta garbi ikus daiteken bezala, oro har, esan liteke mundu honetako langileek ez dutela titulua edota egiaztatze-sistema erabilerarekin lotzen. Honakoak izan dira erabilerarekin lotu dituzten hitz-gakoak:

- Hizkuntza ohiturak aldatzea
- Atxikimendua
- Borondatea
- Harreman-sarea
- Motibazioa
- Ingurua
- Giroa
- Integrazioa
- Gogoia
- Jokabidea
- Jarrera

Ikusten denez, euskara irakasleek behin eta berriro errepikatu dituzten ideiak harreman-sarearekin (giroa, ingurua, harreman-sarea), ohitura aldaketarekin (hizkuntza ohiturak aldatzea)eta nahiarekin (borondatea, motibazioa, jarrera, jokabidea, gogoia, atxikimendua) daude lotuak. Hiru ideia horiek dira gehien errepikatzen direnak, nahiz eta sarritan, irakasleek adiera edo hitz ezberdinak erabili dituzten ideia horien gainean azalpenak emateko. Horrek, beraz, argi uzten du ikasleen inguruak eta ikasleen motibazio edo ikasteko gogoak duen garrantzia alimalekoa dela.

Ondorioak

Ikerlan honetan erabilitako galdetegietatik jasotako emaitzak ikusi ondoren, inolako zalantzarik gabe, hainbat ondorio atera daiteke;

Lehenik eta behin, inolako zalantzarik gabe, baieztatu daitezke euskaltegira doazen ikasle gehienek motibazioa instrumentala dela (orain arteko lanek ziotenaren kontrara). Batez ere, titulua lortzea dute helburu, baina lana hobetzeko edo lana aurkitzeko asmoz euskara ikasten dutenak ere ez dira gutxi. Askoz gutxiago dira motibazio integratzailea dutenak. Bereziki txikia da lagunekin eta familiarekin hitz egiteari euskara ikasleek ematen dioten garrantzia.

Erabilerari dagokionez, euskaltegiko ikasleen euskararen erabilera oso baxua da esparru guztietan. Batez ere,

oso eskasa da esparru informaletan (etxean, lagunartean) eta zertxobait altuagoa arlo formaletan (dendetan, administrazioan). Edonola ere, datuek erakusten dute euskaldun berriek apenas erabiltzen dutela euskara, esaterako, etxeko erabilera hutsala da. Egoera horrek hainbat urtez bere horretan iraungo balu, transmisioaren-etetea ekar lezake; hizkuntza baten desagertzeaz dagoela adierazten digun ezaugarrietako bat. Ikasleek hizkuntza hautaketa egiten dutenean, maila altuko ikasleek ere onartzen dute erosoago sentitzen direla euren ama-hizkuntzan eta, batzuetan, zailtasunak dituztela nahi dutena euskaraz adierazteko. Hala eta guztiz ere, egunerokotasuneko egoeretan euskaraz egiteko gai direla baieztatzen dute.

Euskararen erabilera altuagoa da motibazio integratzailea dutenen artean motibazio instrumentala dutenen artean baino. Esparru guzti-guztietan eta alde nabariarekin. Hortaz, esan daiteke, gaur egun planteatzen den azterketa-ereduak ez duela euskara ikasteko eta erabiltzeko nahia sortzen. Egungo ereduarekin euskara lanerako lanabes edo tresna hutsa baino ez da; hizkuntza erabilgarri, multifuntzionala eta bizia izan beharrean, kaxoi batean gordeta egongo den ziurtagiria baino ez da ikasle gehienentzat.

Harreman-sareari buruz esan daiteke inkestatutako ikasleek (Gipuzkoako euskaltegiak) aukera dutela, oro har, euskaraz aritzeko. Batik bat, herrian, lantokian eta lagunartean. Etxean ere gehienek aukera dute, baina kopurua ez da hain altua, bi herenek baino ez dute aukera.

Harreman-sarea eta euskara-maila nahikoa dutenen artean, euskararen erabilera oso eskasa da. Beraz, ondorioztatu daiteke euskaldun berrien erabilera eskasaren zioak bilatu direnean egindako baieztapena (“Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak hitzunen gaitasun erlatiboa eta harreman-sareak dira.”) ez dela guztiz zuzena, edo behinik behin, aldagai gehiagok hartzen dutela parte. Hortaz, egilearen aburuz, gaitasun erlatiboa eta harreman sare nahikoa ez dutela esatea, kasu askotan, aitzakia da euskara erabiltzeak eragiten dien esfortzua saihesteko.

Oro har, ikasle eta irakasleek antzeko datuak eman dizkigute eta bat etorri dira ia alor guztietan. Hala ere, irakasleen arabera motibazio instrumentalak ikasleek diotena baino pisu are handiagoa du. Hau da, ikasleek onartu dute motibazio instrumentala dela nagusi, baina irakasleen datuei erreparatuta, ikasleek aitortu digutena baino are garrantzia handiagoa du egiaztatzeak ikasleentzat. Ildo beretik, irakasle gehienek uste dute bilakaera eman dela azken hamarkadetan euskara ikasleen aldetik eta helburu aldaketa jazo dela. Hala, lehen mintzamina lantzeraz eta harremanak egitera joaten ziren ikasleak euskaltegira eta, gaur egun, ia denak azterketa prestatzera doaz.

Bukatzeko, egileak uste zuen bezala, irakasle gehienek ez dute loturarik ikusten euskara-maila egiaztatzea eta euskara erabiltzearen artean. Aitzitik, aditu batzuek egiaztatze-sistemak negatiboki eragin dezakela uste dute.

Aurrera begirakoak:

Lan hau ur tanta bat baino ez da. Egilearen ustez biribila eta ederra, noski. Baina bere bakantasunean indarrik ez duena. Zeren ur tanta bat nonbaitera iritsiko bada, beste batzuekin baitu elkartu beharra. Tantak jario bihurtu behar du, isuri, erreka, ibai eta azkenerako itsaso. Ezpabere, atzendua geratuko da, deslai.

Lan honen bidez, Gipuzkoako euskaltegietako euskara ikasle helduen egoera ezagutu nahi izan dugu. Ekarpen horiek oso aberasgarriak izan arren, ezin dute, inondik inora, islatu euskararen atzean dagoen errealitate osoa. Horregatik, hemendik aurrera ondo etorriak izango dira egoera beraren beste ikuspegi bat ematen diguten lanak. Azken batean, gauza bera, hainbat ikuspegitik aztertuta, ezberdin dirudi. Hau da, edozein gairen gaineko errealitatea etengabe aldatzen ari den marrazki bat balitz, ikuspegi bakoitzak irudi horren zati bat argituko liguke. Beraz, lan honetan ahotsik izan ez duten ikasle eta irakasle horien guztien ahotsak ere ondo etorriak izango dira aurrean dugun errealitatearen argazkia hobeto aztertze, interpretatzeko eta ulertzeko. Irudia argitze eta osotasuna ezagutzeko.

Beraz, hemendik aurrera euskararen egoeraren gainean egiten den zein-nahi aztergaik osatuko du, hein handi batean, hemen agertzen den ikerlana. Eta, halaber, lan honek orain artean egindako lanei aletxo bat erantsi nahi izan die. Xedea, tanta xume eta bakanez osatutako itsasoa sortzea baita.

Euskararen osasun egoerari buruzko hausnarketa:

Gaur egun hizkuntzalari gehienek arabera, lurrean 6.000 hizkuntza inguru hitz egiten dira. Grimesek (2000) “Ethnologue” liburuko hizkuntza-zerrendan 6.800 baino gehiago jaso ditu, Bright-ek (1992) “International Encyclopedia of Linguistics” liburuan 6.300 sarrera bildu ditu, eta Moseley eta Asher-ek (1994) “Atlas of the world’s languages” liburuan 6.796 hizkuntza dakartzate. Autore horiek esaten dutenez, baina, sei mila hizkuntza horietatik, askoren etorkizuna ilun samarra da.

Hizkuntza baten osasun egoera zer moduzkoa den zehaztea ez da lan makala. Izan ere, aldagai anitz ikertu behar da, esaterako:

Garrantzia handia duen eragileetako bat **hiztun-kopurua** da. Munduko hizkuntzen % 59.4k ez du 10.000 hiztun, hau da, 3.600 hizkuntza inguruk 10.000 hiztun baino gutxiago dituzte eta munduko hizkuntzen % 4.8k baino ez du milioi bat hiztun baino gehiago.

Aztertu beharreko beste alor bat hiztun horien **adina** da, noski. Azken finean, hiztun kopuru handia izan arren, hiztun guztiak zaharrak badira, hizkuntza horrek ez du luzaroan iraungo eta laster hilko diren hiztun zahar horiekin batera zenduko da. Hori dela eta, soziolinguistikan oinarritzko kontzeptua da **transmisioa**. Kraussek aipatzen duen legeaz, munduko hizkuntzen % 30ek hizkuntza-transmisioa guztiz eten dute, hots, gurasoek ez diete seme-alabei irakasten (Krauss, 1992). Transmisioa etenez gero, 40 edo 50 urteren buruan hizkuntza hil egingo dela kontu garbia da. Egoera larrian dauden hizkuntzak, beraz, ez dira soilik hiztun-kopuru apalak dituztenak.

Dena dela, hizkuntzen osasun egoeran zeresan handien duen aldagaia **erabilera** da. Horren gainean bada datu argigarri bat: 70 hizkuntza mintzatuenek munduko biztanleen 3/4ak hartzen dituzte, gainerako 5.900 hizkuntzek gizakien laurdena ozta-ozta hartzen dutelarik. Datu hori ikusita, beraz, argi dago hizkuntza asko galtzeko arriskuan daudela. Kontu jakina da hizkuntza aniztasuna galtzen ari dela munduan (Wurm 1996, 2001, Comrie, Matthews eta Polinsky 1996, Junyent 1999, Nettle 1999, Moreno Cabrera 2000, Crystal 2000, Hagege 2000).

Europar Batasunean dagoeneko gertatu da hizkuntza aniztasunaren galera, izan ere, EB osatzen duten 27 estatuetako gobernu gehienek gutxitutako hizkuntzak baztertu egin dituzte eta asimilazio politika erasokorrak bultzatu dituzte (Martí et al, 2005)

Komunitate linguistikoen banaketa administratiboek herri nortasuna desagituratzen eta komunitate horren bilakaera historikoa desitxuratzen dute. Horri buruz asko jakin beharko genuke euskaldunok, izan ere, Euskal

Herria hiru administrazioetan banatuta egoteak eragin zuzena izan du euskaldunen herri kontzientzia ahultzerakoan eta euskal hiztunak murrizterakoan. 1866-1868 urte bitartean, 903.217 euskal herritarretatik erdia baino gehiago, 471.000 inguru, euskal eleduna zen (Intxausti, 1992:134). Hortaz, XIX. Mendearen bigarren erdian, euskarak izugarritzko indarra zuen gizarte hartako arlo eta eremu guztietan. Mende eta erdi beranduago, euskal herritarren artean euskaldunak ez dira herenera iristen.

Erakundeen babes ezak hizkuntza asko ahultasun egoeran egotea eragin du. Hori dela eta, gaur-gaurkoz legearen babesa eta ofizialtasunari garrantzia handia aitortzen zaio. Batez ere, diglosi egoeran dauden hizkuntzen kasuan. Zeren ezin baitugu ahanzi diglosia egoeran bizi garela, eta, ondorioz, euskara gaztelaniaren

edo frantsesaren menpe bizi dela. Asko dira, euskara ondo jakin arren, erabiltzeko inolako beharrianik sentitzen ez dutenak. Euskal Herriko biztanleen % 58,9 elebakarra izanik, euskaraz bizitzea gaztelaniaz edo frantsesez (Iparraldean) bizitzea baino zailagoa da.

Reversing Language Shift (Fishman, 1998) edo HINBE (Mikel zalbide, 2008) prozesuak eraginkortasunez gauzatzeko gauza izan diren hizkuntzak oso gutxi dira. Agian, bakarra; Hebrerera. Hortaz, euskara galduko den hizkuntza mordo horien arteko bat izan nahi ez badu, hobe dugu gure esku dagoena orain eta hemen egitea. Gero, Pedro Daguerre Azpilicueta, Axular.

Egindako lanera itzuliz, esan dezadan, lehenik eta behin, lan honen helburua informazioa eskuratzeaz gain, nire ustez, egun euskarak duen arazo batez ohartaraztea izan dela. Izan ere, euskararen etorkizuna euskaldun berrien esku dago neurri handi batean, eta, ikusi dugunez, orain artean erabilitako estrategia eta teknikak ez dira eraginkorrak izan euskaldun berriek euskara egunerokotasunean erabil dezaten. Susmo horretatik abiatu zen ikerlan hau eta esango nuke lanaren emaitzak ikusita susmo edo beldur hori baieztatu daitekeela. Edonola ere, lanean barrena hainbat aldiz motibazio integratzailearen alde egin izanak ez du esan nahi, inondik inora, motibazio instrumentala beharrezkoa ez denik. Aitzitik, euskarak egun duen balio erantsiagatik ez balitz, (batez ere, motibazio instrumentalari dagokiona) euskaltegiak huts-hutsik izango genituzke. Beraz, gera dadila argi, motibazio mota guztiak dira beharrezkoak eta guztiei aitortu behar zaie zilegitasuna.

Hori esanda, eta errepikakorra izan nahi ez badut ere, motibazio instrumentala ez da aski. Euskarak iraungo badu ezinbestekoa da barne-motibazioa sustatzea. Nire ustez, euskara balio baikor eta positiboekin lotu beharra dago derrigorrean, aisialdiko hizkuntza bihurtu behar dugu, freskoa, dibertigarria, atsegina, erakargarria, modernoa eta, nola ez, erabilgarria. Horretan lan aparta egin dute, esate baterako, kuadrilategi edo mintzalagun egitasmoek eta baita AEK-ko uda barnetegiak ere. Bereziki interesgarria deritzot AEK-k antolatzen dituen barnetegi ibiltariei, non, eskolarik jaso gabe, ikasleek naturaz eta aisiaz gozatzeko aukera

ederra duten, bi astez, mintzamina modu erreal eta erlaxatuan landuz. Beraz, nire iritziz, euskara ezin da soilik derrigortasunezko edo esparru normatiboetan hazi, (eskolan, lanean) handik haragoko jauzia egin behar du nahitaez. Horretarako, giro positiboa eta aukera linguistiko berdintasuna bultzatu eta erakundeen arteko elkarlan eta elkarkidetzan oinarritutako diskurtso euskaltzalea indartu behar dugu.

Laburbilduz, euskal hiztunak ez direnei euskara hizkuntza gustagarria, bizia, adierazkorra eta multifuntzionala dela erakutsi behar diegu, eta lortu behar dugu hiztun ez diren horiek euskara ikasi eta **erabil** dezaten. Azken finean, horixe baita gakoa, erabilera.

Bitoriano Gandiaga euskal olerkariak esan zuen bezala: erabiltzen ez bada, hil egiten da euskara, ez da ezegatik, baina, aipatu egiten dizut badaezpada.

Gandiagaren garai urrunetara joan barik, gugandik gertuago (kronologikoki zein espazialki) Bernardo Atxagak xaboiaren irudia erabili zuen, Abdelkader Kilito irakasle eta idazleari hartuta:

Ez baitago beste sekreturik hizkuntza hazi eta lanabes on bihurtu dadin: praktika, erabilpena. Abdelkader Kilitok dioena kontuan hartuta diot hori. "Hizkuntza -dio Casablancako unibertsitate irakasleak- xaboiaren kontrakoa da: zenbat eta gehiago erabili xaboa, orduan eta urrituago eta xahutuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago"

Erabileran eragiten duten faktoreez berba egiten dugunean hiru maila bereizi ohi dira; Dimentsio makrosoziala, dimentsio mikrosoziala eta norbanako maila. (Martínez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009: 163-195)

Dimentsio makrosoziala orokor eta objektiboa dela esan daiteke eta Josua Fishmanek esan bezala hiru osagai biltzen ditu bere baitan; gizartearen babesa, hizkuntza politika eta lege estatusa.

Gizartearen maila mikrosozialari dagokionez, hau ere hiru azpimailatan banatua izan da; harreman funtzionala, kokapena eta denbora tarteak. Teoriaren arabera hizkuntzaren erabilera, azken batean, maila honetan gauzatzen da; Hala balitz, ikuspegi horretatik, maila makro-soziala eta norbanako maila bigarren plano batean egongo lirateke. Hala eta guztiz ere, ez da beti hórrela izaten. Esaterako, euskararen kasuan konprobatu da, kasu batzuetan, behinik-behin, dimentsio mikro honetako hurbileko komunitatearen eta norbanakoaren sostengua nahikoa izan daitezkeela hizkuntzak iraun dezan, dimentsio makro-sozialeko baldintzak aldekoak izatetik lekutan daudenean ere (Erize, 1997: 24, 36).

Halaber, hizkuntza jakin bat erabili ahal izateko, maila mikrosozialean ezinbestekoa da beste baldintza hauek ere betetzea: a) harreman sare horietan hizkuntza bera partekatzen duten beste pertsonak egotea; b) hiztunak beste hiztun horiek hizkuntza horretako hiztun gisa identifikatzea, alegia, hizkuntza horretan aritzeko gai direla jakitea; c) talde batez ari garen kasuetan, beharrezkoa izango da taldeko kide gehienak hizkuntza horretan aritzeko gai izatea ere (Amonarriz, 1991: 40-41).

Irakasleen emaitzak aztertu ditugunean, behin baino gehiago agertu da borondate edo nahia hitza. Edonola ere, adituen arabera hizkuntza hautua botere-harremanen arabera egin ohi da. Horrenbestez, gizartearen

maila altuak edo eliteak sustatzen ez badu, nekez egingo du Aurrera hizkuntza batek. Hala azaltzen du Cooperrek;

La planificación lingüística puede iniciarse en cualquier nivel de la jerarquía social, pero es poco probable que dé resultado a menos que las élites o las contra-élites la acepten y la promuevan. (Cooper, 1997: 216)

Norbanako mailan bi osagairi eman ohi zaie garrantzia; gaitasun erlatiboa eta motibazioa.

Izan ere, gizarte egoera gutxituan dagoen hizkuntza bat hautatzeko gaitasun erlatibo handia eta motibazioa nahikoa ezinbestekotzat jotzen ditu Sánchez Carrión “Txepetx”-ek (Sánchez Carrión, 1991: 35-64). Edozelan ere, euskaraz egiteko gai izateak eta motibazio nahikoa izateak ere, ezin du hizkuntzaren erabilera ziurtatu gizarte baldintza mikrosozialak zein makrosozialak desegokiak direnean.

Esanak esan, bukatzeko, iruditzen zait jendarteak euskara ikas dezan bide berriak aurkitu behar ditugula. Egiaztatze-sistemaz harago, euskara munduari balorea eman eta motibazio integratzaileari hauspo emanez. Hala eta guztiz ere, ez dirudi egiaztatze-sistema errotik aldatzeko nahia dagoenik, nahiz eta argi dagoen ez diola erabilerari ekarpen handirik egiten. Horregatik, egun darabilgun egiaztatze-sistema indargabetu ezean, komeni zaigu egiaztatze hori euskararen premia eta beharretara egokitzea. Izan ere, oraingo azterketa ereduak ez dira egokiak, ez dira koherenteak eta ez dira zuzenak (euskararen mesede izan behar badute, bederen). Gehiegizko zuzentasunak edo garbizaletasunak ez dakarkio onurarik euskarari, garaia da aberastasuna (gutxi erabiltzen diren esamolde jatorrak sustatu eta orainera ekarri; edota hutsuneak dauden kasuetan, Ingelesarekin eta gaztelaniarekin lehiatzeko berriak sortu) eta egokitasuna (egoera bakoitzaren aurrean erabaki zer hizkuntza mota erabili behar den; formala eta zuzena edo informala eta egokia) lehenesteko. Azken albisteek, EGA-ren desagerpena eta ardura hori HABE-k bereganatzea, ordea, aurkako noranzkoa erakusten dute, ziurrenik gobernutik jasotako presioen eraginez.

Aitortzen dut errazagoa dela kritika egitea irtenbideak topatzea baino. Horregatik, azterketa ereduak egungo beharretara egokitzeko hiru proposamen xume plazaratuko ditut:

- Proben ordena aldatu. Mintzamina aurreratu egin behar da, garrantzia handien duen proba baita. Euskara hitz egingo den hizkuntza bada, behintzat. Egun mintzamina azken proba da eta garrantzia handiago ematen zaio idatzizko probari. Baina, langile askok ez du zertan jakin nola idatzi gutun formala edo erreklamazio gutuna. Hitz egiten, ordea, denek jakin beharko lukete, nire ustez.
- Azterketa ereduak aldatu ezean, iraungitze-data duten azterketak proposatu. Hau da, agiriak bost urtez

egongo dira indarrean. Urte horiek igarota, berriro ere egiaztatu beharko da maila (ordaindu gabe, noski, xedea ez baita negozio egitea). Nolabaiteko ebaluazio jarraitua izango litzateke eta aldiro euskara-maila berrikusiko litzateke.

- Sistema aldatu eta azterketa eredu anitza sortu. Hots, Europako markoaren proposamenari muzin eginez, B1, B2 eta enparauak desagerrarazi eta lanpostu bakoitzari egokituta dagoen egiaztatze-sistema eskaini. Horrek zailtasun handiak lekartzake, baina idatzi behar ez duen igeltsero bati eskutitz formalak eginaraztea ez al da zentzugabekeria itzela? Kasu honetan, langile bakoitzak frogatu beharko du kapaz dela bere lana euskaraz egiteko. Hortaz, erizain batek gaixoekin euskaraz mintzatzeko jariora beharko duen bitartean, agian, okin bati ez zaio bere lan-arloko lexikoa baino askoz gehiago eskatu behar. Gaur egun, hainbat enpresatzaile lan egiten duten beharginekin erabiltzen den sistema da; besteak beste, zenbait zahar egoitzatan, begirale enpresa batzuetan, eta abar. Aztertzaileek ahozko proba egiten diete langileei eta erabakitzen dute lan hori betetzeko aski maila duten ala ez. Gaindituz gero, ez dute agiri edo titulurik lortzen baina lan horretan jarraitzeko maila nahikoa dutela egiaztatzen dute.

Azkenik, elkarlana sustatzeko aldarrikan txikia egin nahiko nuke. Euskarak behar du norabide berean arraun egiten duen gizarte multzo bat. Noraezean edo alderrai joateak dakarren indar hustutzea ekiditea ezinbestekoa da, helburuak zehaztu, plan-estrategikoak gauzatu eta horren alde gizartea inplikatu. Maialen Lujanbio bertsolariak aurtengo Korrikaren mezuan esan zuenez:

Mundu bat euskarak,

mende erdia euskara batuak,

eta ehunka, milaka bizitza eta gogo

EUSKARAK BATUAK

Erreferentziak

AGIRRE, S., ARRIETA, M., LARRAÑAGA, X., PERALES, J. (1999): *Administrazioko langileen satisfazio-maila euskara ikastean*, Barne-txostena.

AMONARRIZ, K. (1991) Euskararen erabilpenaren kale neurketen inguruko gogoetak. Bat Soziolinguistika aldizkaria 3-4 (39-50).

ARRATIBEL, N. (1994): "Hizkuntz jabekuntzarako eredu psikosozialak. Motibazioaren errola", In Intxausti, J. (ed.), *Euskararen aldeko motibazioak*, Donostiako Udako XIII. ikastaroak. 1994 uztaila. EHU

BARBER JH, WALLIS JB, MCKEATING E. A postal screening questionnaire in preventive geriatric care. J R Coll Gen Pract 1980, 30 (210): 49-51.

BRIGHT, W. (1992) The international encyclopedia of linguistics. Oxford and New York: Oxford University Press.

BROWN, Douglas H. (1975): "Affective variables in Second Language Acquisition". *Language Learning*, vol. 23, n.º 2, pp. 231-244.

CASTRO José (1991): "A Reappraisal of Motivation: The Cornerstone of L2 Language Learning". *Revista Alicantina de Estudios Ingleses*, vol. 1.4, pp. 11-23.

CENOZ, Jasone (1993): "Diferencias individuales en la adquisición del inglés". *Revista Española de Lingüística Aplicada*, vol. 9, pp. 27-36.

CLÉMENT, R; DORNYEI, Z eta NOELS, K, (1994): "Motivation, Self-Confidence, and Group Cohesion in the Foreign Language Classroom". *Language Learning*, vol. 44, n.º 3, pp. 417-448.

COMRIE, B., MATTHEWS, S. eta POLINSKY, M. (1996): The Atlas of languages. The origin and Development of Languages Throughout the World. New York: Facts On File.

COOPER, R. L. (1997). La planificación lingüística y el cambio social. Cambridge. Cambridge University Press.

CRYSTAL, D. (2000): Language Death. Cambridge University Press, United Kingdom.

DA SILVA, J. (1983): "Euskaldunzaharrak eta euskaldunberriak", *Jakin* 26/27: 115-133.

DERRYBERRY, D., & Tucker, D. M. (1994). Motivating the focus of attention.

DORNYEI Zoltan (1994): "Motivation and Motivating in the Foreign Language Classroom". *The Modern Language Journal*, vol. 78, iii, pp. 273-283.

DULAY, H. BURG, M. eta KRASHEN, S. (1982): *Language Two*. New York / Oxford: Oxford University Press.

ERIZE, X. (1997). Nafarroako euskararen historia sozio-linguistikoa, 1863-1936. Iruñea. Nafarroako Gobernua

EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA: *Erreferentzia maila bateratuak: eskala orokorra*

EUSKO JAURLARITZA: *VI. Inkesta soziolinguistikoa. 2016.*

FISHMAN Joshua, Sociologia del lenguaje, Madrid, Catedra, 1988.

GARDNER R.C. eta LAMBERT W. E. (1972): *Attitudes and Motivation in Second Language Learning*. Newbury House.

GARDNER R.C. (1982): "Language attitudes and language learning", en GILESH, . y BOUCHARRYDA NE,. (eds.), pp. 132-147.

GONZALEZ, Cruz, I eta Henrike, JIMENEZ, S (1997): "Adquisición y aprendizaje de lenguas segundas y sus literaturas". *Actas del I Congreso Internacional 'Ydquisición e aprendizaxe das linguas segundas e as súas literaturas'*. Universidad de Santiago de Compostela, pp. 129-134.

GREEN, John (1993): "Student Attitudes Toward Communicative and Non-Communicative Activities: Do Enjoyment and Effectiveness Go Together?". *The Modern Language Journal*, 77, i, pp. 1-10.

GRIMES, B. F. (ed.) (2000) *Ethnologue: Languages of the world*, 14th edition. Dallas: Summer Institute of Linguistics.

HAGÈGE, C. (2000): Halte à la mort des langues. París: Éditions Odile Jacob [2002. No a la muerte de las lenguas. Barcelona: Paidós].

HARMER, Jeremy (1989): *The Practice of English Language Teaching*. London 1 New York: Longman Group Limited.

INTXAUSTI, J. (1992): Euskera. La lengua de los vascos. Elkar, Donostia

JUNYENT, C. (1999): La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo. Octaedro argitaletxea, Bartzelona.

KRAUSS, M. (1992) "The world's languages in crisis", *Language*, 68-1, 4-10.

LARRAÑAGA N. (1995). *Euskal gaztetxoek euskararekiko jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Tesi doktora, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea

MARTÍ, F., Ortega, P., Amorrortu, E., Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P. Junyent, C. y Uranga, B. (2005) *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

MARTINEZ-ARINAS, J. (1986): "Motivaciones para el aprendizaje del euskera por los alumnos de los euskaltegis de Bilbao en 1983", In J. RUIZ OLABUENAGA & J. A. OZAMIZ (edk.), *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Tarttalo.

MARTINEZ de LUNA I. eta besteak (2000). *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Gasteiz

MARTÍNEZ DE LUNA, I., Suberbiola, P. eta Basurto, A. (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco

MASLOW, A. H. (1991). *Motivación y personalidad*. Madrid: Díaz de Santos

MORENO CABRERA, J. C. (2000) *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza Editorial.

MORGAN JF, Reid F, Lacey JH. The SCOFF questionnaire: assessment of a new screening tool for eating disorders. *BMJ*, 1999; 319: 1467-8.

MOSELEY, C. eta Asher, R. E. (1994) *Atlas of the world's languages*. Londres: Routledge.

NETTLE, D. (1999): *Linguistic Diversity*. New York: Oxford University Press.

OLLER, John, W. (1981): "Can Affect Be Measured?". *Irati*, vol XIX, n.º 3, pp. 227-235.

OXFORD, Rebecca eta SHEARIN, Jill (1994): "Language Learning Motivation: Expanding the Theoretical Framework". *The Modern Language Journal*, n.º 78, i, pp. 12-25.

PEDRO AXULAR (1643). Gero.

PERALES, J. (1989): "Euskara-ikasleen motibazio eta jarrerak", *Zutabe* 21: 9-50

PERALES, J. (1996): "Ikasle helduen heretura euskara ikasteen", *Hizpide* 37: 32-52.

PERALES, J. (1997): "Administrazioko langileen euskara-irakasleen usteak", *Hizpide* 39: 31.

PERALES, J. (2000): *Euskara-ikasle helduen ikas-prozesua: ikaslearen baitako zenbait aldagairen eta arrakastaren arteko erlazioa*, Doktore-tesia EHU/UPV.

PEREZ DE ARRIBE, J. (1986): "Hizkuntz jarrerak: motibazioak Gasteizen", In J. Ruiz Olabuena- ga & J. A. Ozamiz (edk.), *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Ttartalo.

SANCHEZ CARRION J.M. "Txepetx" *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. (1991) 2ªed. SFV Julio Urquijo, Adorez eta Atseginez, Donostia

SCOVILL, Thomas (1978): "The Effect of Affect on Foreign Language Learning: A Review of the Anxiety Research. *Language Learning*, vol. 28, n.º 1, pp. 129-142.

SPOLSKBY, Bernard (1969): "Attitudinal aspects of second language learning". *Language Learning*, vol. XM, n." 3-4, pp. 271-285.

SPOLSKBY Bernard (1989): *Conditions for Second Language learning*. Oxford: Oxford University Press.

SPOLSKBY Bernard (1998): *Sociolinguistics*. Oxford: Oxford University Press.

TITONE, Renzo (1982): "Second Language Learning: An integrated Psycholinguistic Model", en BAIN,B. (ed.). New York: Plenum Press, pp. 273-285.

WURM, S. A. (1996) Atlas of the world's languages in danger of disappearing. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.

WURM, S. A. (2001): Atlas of the world's languages in danger of disappearing. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.

Zalbide, M., eta Cenoz, J. (2008). Bilingual education in the Basque Autonomous Community: Achievements and challenges. *Language, Culture and Curriculum*, 21(1), 5-20.

ZARIT, S.H. et al. Relatives of the impaired elderly: correlates of feelings of burden. *Gerontologist* 1980;20:649-655.

Eranskinak:**Irakasleentzako galdetegia****Zergatik ari dira zure ikasleak euskara ikasten? (Ordenatu batetik bostera. Bat garrantzitsuena)**

- Titulua lortzeko
- Lagunekin hitz egiteko
- Lana aurkitzeko aukera gehiago izateko
- Familiarekin hitz egiteko
- Euskal Herriko hizkuntza delako

Eskolak ematen hasi zinenetik antzeman duzu ikasleen aldetik helburu aldaketarik?

Bai	Ez
-----	----

Erantzuna baiezkoa bada, zer aldaketa? (Aukeratu bat)**Lehen:**

- Gramatika landu nahi zuten
- Mintzamina landu nahi zuten
- Sozializatu nahi zuten
- Azterketa prestatu nahi zuten

Orain:

- Gramatika landu nahi dute
- Mintzamina landu nahi dute
- Sozializatu nahi dute
- Azterketa prestatu nahi dute

Uste duzu zure ikasleek euskaraz egiteko harreman-sare nahikoa dutela?

Bai	Ez
-----	----

Uste duzu zure ikasleek euskaraz hitz egiteko euskara-maila nahikoa dutela?

Bai	Ez
-----	----

Zein da zure ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Zure ustez euskara-maila egiaztatzea lotuta al dago euskara erabiltzearekin?

Ikasleentzako galdetegia

Bizitokia: Maila: Zein da zure ama-hizkuntza:

Zergatik ari zara euskara ikasten? (Ordenatu batetik bostera. Bat garrantzitsuena)

- Titulua lortzeko
- Lagunekin hitz egiteko
- Lana aurkitzeko aukera gehiago izateko
- Familiarekin hitz egiteko
- Euskal Herriko hizkuntza delako

Zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean? (Aukeratu bat eta markatu X bidez)

Etxean?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Lagunekin?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Lantokian?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Herriko dendetan?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Administrazioan?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Anbulatorioan?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
---------	------------	-----------

Zer moduz egiten duzu euskaraz? (Aukeratu bat eta markatu X bidez)

Bikain. Ez daukat inolako arazorik gauzak argi eta garbi azaltzeko.

Oso ondo. Ez dut aparteko arazorik izaten nahi dudana adierazteko.

Ondo moldatzen naiz baina batzuetan zailtasunak izaten ditut.

Ez oso ondo. Maiz, kostatzen da egiten zait nahi dudana adieraztea.

Zure ama-hizkuntzarekin alderatuta, zer moduz egiten duzu euskaraz?

Nire ama-hizkuntzan baino errazago aritzen naiz euskaraz.

Nire ama-hizkuntzan bezain ondo aritzen naiz euskaraz.

Egunerokotasuneko gaietan bi hizkuntzetan moldatzen naiz ondo baina hiztegi teknikoagoa eskatzen duten ekintza-komunikatiboetan errazago moldatzen naiz nire ama-hizkuntzan.

Oro har, nire ama-hizkuntzan errazago moldatzen naiz.

Aukera daukazu zure inguruan euskaraz hitz egiteko? (Aukeratu bat eta markatu X bidez)

Etxean?

Bai	Ez
-----	----

Lagunartean?

Bai	Ez
-----	----

Lanean?

Bai	Ez
-----	----

Herrian?

Bai	Ez
-----	----

Emaizak orri batera ekartzeko fitxa

Orotara 286 galdetegi jaso dira. Horrek ez du esan nahi ikasle guztiek galdera guztiei erantzun dietenik. Hori dela eta, galdera batzuek 286 erantzun dituzte eta beste batzuek gutxiago.

Instrumentala: 175**Integratzailea: 108**

Instrumentala	Instrumentala	Integratzailea	Integratzailea	Integratzailea
Titulua lortzeko	Lana aurkitzeko	Lagunekin hitz	Familiarekin	Euskal Herriko
113	62	11	26	71

Instrumentala	Instrumentala	Integratzailea	Integratzailea	Integratzailea
Titulua lortzeko	Lana aurkitzeko	Lagunekin hitz	Familiarekin	Euskal Herriko
40	40	45	122	33

Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien?**Etxean:**

Euskara	Gaztelania	Beste bat
44	232	7

Lagunekin:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
36	242	5

Lantokian:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
69	195	7

Herriko dendetan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
98	178	5

Administrazioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
72	201	6

Anbulatorioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
62	212	5

Zer moduz egiten duzu euskaraz?

Bikain	Oso ondo	Ondo baina	Ez oso ondo
12	77	182	10

Zure ama-hizkuntzarekin alderatuta...

Bikain	Oso ondo	Ondo baina	Ez oso ondo
8	14	104	150

Aukera daukazu zure inguruan euskaraz hitz egiteko?

Etxean

Bai	Ez
179	106

Lagunartean

Bai	Ez
222	61

Lanean

Bai	Ez
222	47

Herrian

Bai	Ez
264	20

Motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea banatuta. **Lehen aukera instrumentala:**

Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien?

Etxean:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
8	164	3

Lagunekin:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
5	167	3

Lantokian:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
30	135	4

Herriko dendetan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
43	130	2

Administrazioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
35	136	4

Anbulatorioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
25	146	3

Lehen aukera integratzailea:

Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien?

Etxean:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
36	68	4

Lagunekin:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
31	75	2

Lantokian:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
39	60	3

Herriko dendetan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
55	48	3

Administrazioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
37	65	2

Anbulatorioan:

Euskara	Gaztelania	Beste bat
37	66	2

Irakasleen galdetegi: 91 Galdetegi jasota.

Zergatik ari dira zure ikasleak euskara ikasten?**1. aukera:**

Instrumentala	Instrumentala	Integratzailea	Integratzailea	Integratzailea
Titulua lortzeko	Lana aurkitzeko	Lagunekin hitz	Familiarekin	Euskal Herriko
52	17	6	9	5

5. Aukera

Instrumentala	Instrumentala	Integratzailea	Integratzailea	Integratzailea
Titulua lortzeko	Lana aurkitzeko	Lagunekin hitz	Familiarekin	Euskal Herriko
7	8	19	6	48

Bilakaera

Bai	Ez
58	29

Bai jarri dutenen artean:

Lehen:

Gramatika	Mintzamina	Sozializatu	Azterketa
3	25	25	6

Orain:

Gramatika	Mintzamina	Sozializatu	Azterketa
3	3	2	51

7- Zure ikasleek harreman sare nahikoa?

Bai	Ez
50	40

8- Zure ikasleek maila nahikoa?

Bai	Ez
71	19

Zein da zure ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
8	82	0

7 eta 8 galderan Bai erantzun dutenen artean:

Zein da zure ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntza?

Euskara	Gaztelania	Beste bat
6	38	0

Azken galdera dagoen bezala kopia: (ez baino jarri ez dutenena ez kopia.)

Ez	23
Ez dute erantzun	3
Bai	2

28k ez dute testurik jarri.
